


**hh**  
hik hasi

**Oihane Fernandez Lasarteri elkarrizketa**  
**Oñatiko ondarea euskarri digitalean**  
**Kolonbiarrak Euskal Herrian**  
**Heriotza aurrez aurre**  
**Argiaren pedagogia**  
**'Kapen' karta-joko didaktikoa**  
**Olatz Salvador**



**ZIENTZIA TXIKITATIK**



# MARIMATRAKAK

Marimatraken obentura berriak



glor

www.gloria-grinosa.com

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## ZIENTZIA TXIKITATIK

Fenomenoekin, materialekin, objektuekin eta, oro har, naturako elementuekin harreman zuzena izatea ahalbidetzen die zientzia espazioak haurrei. Montserrat Pedreira irakasle eta ikerlariaren ustez gaur egungo gizartean oso beharrazkoa dugu esperientzia hori. 'Zientzia espazioak aukera askean' izenburupean formazioa eskaini berri du Euskal Herrian. Bertan aipatutako ideiak eta gakoak jaso dira erreportajearen.

## ELKARRIZKETA / 18

### OIHANE FERNANDEZ LASARTE

Ikaslearen babes soziala, adimen emozionala eta autokontzeptua arrakasta akademikoarekin lotuta daudela baieztatu du Oihane Fernandez Lasartek Psikor taldearekin egindako ikerketa batek. Horregatik garrantzitsua ikusten du hiru kontzeptu horietan atentzioa jartzea. Elkarrizketan eskola aldagaiek, aldagai psikologikoen eta testuingurukoek ikasleei zer mailatan eragiten dieten izan du hizpide.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Ane Aranburu, Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karnele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.  
**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.  
**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.  
**Inprimategia:** ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2019-04-15).  
Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

## 5 EDITORIALA

Bizipen eta ideia berriz beteta Kataluniatik bueltan

## 6 ALBISTEAK

## 10 GAI NAGUSIA

Zientzia txikitatik

## 18 ELKARRIZKETA

OIHANE FERNANDEZ LASARTE

"Aldagai psikologikoen indartuz hobetuko ditugu eskola-errendimendua eta eskola-inplikazioa"

## 26 ESPERIENTZIAK 1

Hurretik hasita urrunera iristeko

## 28 ESPERIENTZIAK 2

'Haurren tailerra' haur-eskola Kolonbian

## 30 EKARPENAK

Heriotza aurrez aurre

## 34 GALDEIDAZU

ITSASO PAGOAGA

Nola jar daiteke praktikan argiaren pedagogia eskolan?

## 39 ARGITALPENAK

## 40 PROPOSAMENA

'Kapen', karta-joko didaktikoa

## 42 ATZEKO ATETIK

Olatz Salvador

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



zerbitzua eta  
lana euskaraz





Illegible speech bubble text

Illegible speech bubble text



Illegible speech bubble text



Illegible speech bubble text

Illegible speech bubble text



Illegible speech bubble text



Illegible speech bubble text

Illegible speech bubble text

# Bizipen eta ideia berriz beteta Kataluniatik bueltan

## editoriala

HASIERAN MARGOZ BETETAKO ONTZI BATEKIN SARTZEN ZIREN IRAKASLEAK GELAN. GERO, ISIPUAREKIN HASI ZIREN. ORAIN, PINTZELAREKIN. FINTZEN DOAZ, ETA IKASLEENGANA HOBETO IRISTEN DIRA HORRELA.



**E**torri berri gara Kataluniatik. Euskal Herriatik Kataluniara joan gara bidaia pedagogikoan 25 laguneko taldea Hik Hasirekin, eta motxila beteta ekarri dugu. “Beti ikasten da zeozer, eta beti ekartzen da zeozer”, “pozik joan nintzen eta pozez gainera etorri naiz”, “ikasi baino gehiago, hausnarketa dakart”. Horrelako ondorioak entzun dira bueltako bidaian. Beraz, bai, horrelako bidaiek zerbait mugitzen dute gudan, balio dute hainbat gauzetaz konturatzeko. Esate baterako, gure txikitasunetik eragin dezakegula. Gure gelan, gure lankideekin, gure eskolan, gure ingurune hurbilean, gure herrian, gure herrialdean eta Euskal Herrian eragin dezakegula gure txikitasunetik. “Guk sinesten badugu zerbaitetan, gainerakoek jarraituko digute, bai lankideek eta bai familiarek. Inportantea da guk sinestea”. “Amesten badugu, posible da, hein batean, behintzat”.

Ibilian goaz. Hori da kontua. Kataluniako biran hainbat gauza ikusi ditugu: txokoak eta proiektuak, ikaskuntza komunitatea, proiektu itxi eta irekiak Bigarren Hezkuntzako gazteekin eta eskolatu gabeko 0-3 urteko haurren familientzako espazioa. Rosa Sensat elkarte pedagogikoaren ibilbidea eta gaur egun irakasle katalanek dituzten kezkak ezagutu ditugu. Eta baita Escola Nova 21 hezkuntza egitasmoak ekarri duen astinaldia eta berrikuntza ere. Eredu arras desberdinak, eta hori izan da bidaiaren aberasgarritasunetako bat. Planteamendu eta iritzi desberdinak ikusi eta entzuteak gure motxilan elementu askotarikoak sartzeko aukera eman digu. Kontsentsua asko

goraipatzen dugu, baina desadostasunetik edo aurkakotasunetik ere asko ikasten dugu. Interesgarria da kontrastea.

Eta horrela goaz ibilian. Hasieran margoz betetako ontzi batekin sartzen ginen gelara irakasleok. Ontzia hartu eta baldekada margo botatzen genuen ikasleen gainera. Eta etxera joaten ginen lasai asko, margoa ikasleen artean banatuta zegoela ikusirik. Gerora, konturatu ginen ikasle batzuk blai eginda geratzen zirela, beste batzuk gutxiago eta beste batzuk ez zirela busti ere egiten, etorri ziren bezala joaten zirela etxera. Baina gu pozik margoa banatuta zegoela ikusita. Margorik jaso ez zuten ikasleentzat, beste irakasle bat etortzen zen, beste ontzi batekin eta beste margo batekin, hark busti zitza.

“Eta brotxa hartuko bagenu?” bota zuen norbaitek. Interesgarria. Eta horretan hasi ginen irakasleok. Hor sortu ziren talde kooperatiboak, ikaskuntza komunitateak... Gerora hausnarketa finduz joan zen: “Isipuaren heldulekua egurrezkoa al da? Ez, plastikozkoa. Orduan, txarra. Edo agian iletxoak dira inportanteak...” Baina beno, edonola ere, isipuarekin ari ginen.

Orain, pauso bat aurrerago eman eta pintzelarekin hasita gaude. Adibide nabarmena izan da Jacint Verdager institutuko DBHko planteamendua eta Cadi familia-espazioa. Fintzen ari gara. Hor ere eztabaida dago, nola ez: pintzela egurrezkoa ote den, luzea ala motza, zein markatakoa... Baina ondo ari gara. Azken finean, pintzela erabiltzen ari gara, eta ez ontzia.

**“Pentsatu duzu zertan izan zaitezkeen gaurko errobotak baino hobea? Hori da gure nerabeei egin behar zaien oinarrizko galdera”.**

Ekai Txapartegi





## BIDAIA PEDAGOGIKOA KATALUNIARA



Aurreko urteetan Estonian, Finlandia, Reggio Emilian eta Kuban izan ostean, aurtengoan Kataluniara bidaia egin du 25 laguneko irakasle eta hezitzaile taldeak Hik Hasi Egitasmo Pedagogikoak antolatuta. Apirilaren 23tik 27ra, egitarau betea izan dute partaideek. Besteak beste, La Maquinista eta Joaquim Ruyra Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroak, Jacint Verdaguer DBHko ikastetxea eta Bartzelonako Raval auzoan dagoen CADI familia-espazioa bisitatu dituzte. Baina horrez gain, Rosa Sensat elkarte pedagogikoa edota Escola Nova 21 duela hiru urte sortutako hezkuntza-egitasmoa ezagutzeko aukera ere izan dute.

## ‘BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA’ ESKURATU DU HIK HASIK

‘Bai Euskarari’ ziurtagiriaren bidez, Bai Euskarari Elkartek euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan areagotzea du helburu. Euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean ari diren enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak identifikatu, aitortu eta pausoak ematen laguntzen dituen ziurtagiria da. Mailarik altuenarekin eskuratu berri du Hik Hasi-k Bai Euskarari Ziurtagiria; “Zerbitzua eta lana euskaraz” mailarekin, hain zuzen; zerbitzua euskaraz eskaini eta euskara lan hizkuntzat duen entitatea baita. Beraz, aurrerantzean, Bai Euskarari logotipoa ere txertatuko du Hik Hasi Egitasmo Pedagogikoak bere euskarrietan.



## MURGILTZE EREDUA DEFENDATU DUTE ERAGILEEK IPAR EUSKAL HERRIAN

Frantziako Gobernuak euskarazko murgiltze ereduaren legezketasuna ezbaian jarri izanak kezka eragin du Ipar Euskal Herriko hezkuntza komunitatean. Euskal Konfederazioak gogor salatu du murgiltze ereduia “esklusibo” gisa aurkeztu izana: “Murgiltze ereduia da bide bakarra, egun, eskolara frantsesarekin datozen ikasleak elebidun atera daitezten. Aldiz, inposaketa beste alderakoa da, eredu elebakarra edo elebiduna inposatuko delako”.

Paxkal Indo Seaskako lehendakariak ohartarazi du Parisek “jomugan” duela euskarazko hezkuntza sistema, eta “gibelerat” egin nahi duela. Ikastolekin batera, Ipar Euskal Herriko eskola publiko eta pribatu batzuetan ari dira lanean eskolak osoki euskaraz emanez: 30 ikastetxetan baino gehiagotan esperimentazio batzuk egin dituzte 3 eta 5 urte arteko haurrekin. Jacqueline Gourault Frantziako ministroak, baina, esan du ez dela legezkoa adin horietan garatzea euskarazko murgiltze ereduia. “Onartezina da hori erratea; haur eta gurasoei ezin zaie ukatu eskubide hori”, erantzun du Indok. Egoeraren “larritasuna” ikusita, garrantzitsua iritzi dio aurtengo Herri Urrats festa “jendetsua” izateari.

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## MATRIKULAZIOAREN JAITSIERAGATIK ITXI EGINGO DITUZTE ONDARROAKO TXOMIN AGIRRE ETA DONOSTIAKO CLARET ESKOLAK



50 urteko ibilbidearen ondoren, datorren abuztuaren 31n behin betiko itxiko ditu ateak Ondarroako (Bizkaia) Txomin Agirre ikastolak. Izenean ikastola hitza eroan arren, ez da Ikastolen Elkarteko kide, baizik eta Elizbarrutiko Ikastetxeetako; baita EIB Eusko Ikastola Batzako ere. Eginahalak egin dituzte aurrera jarraitu ahal izateko, baina jadanik eskola ez da “bideragarria”. Kasu askotan ez dira iristen ikasgela bat zabalik edukitzeko behar den gutxieneko ikasle kopurura —hamazazpi—. “Ondarroan urtean ez dira 50 haur ere jaiotzen; oso gutxi dira hiru zentroentzat. Ez dago umerik”, ohartarazi du zentroko zuzendari Alaine Solabarrietak. Gaur egun 28 irakasle daude zentro honetan beharrean. Zer gertatuko da eurekin? Bildu dira sindikatuekin eta abokatuekin. Baina oraindik ez da erabakirik hartu. “Lehenengo, ikasleena konpondu nahi izan dugu, eta jarraian irakasleena”.

Abenduan iragarri zuten Donostiako Claret ikastolak 91 urteko ibilbideari amaiera emango diola —Mariaren Bihotza zen 2016ra arte—. Kristau Eskolako kide da, baita EIBkoa ere. 200 ikasle ditu, eta hurrengo ikasturtean maila jakin batzuetan baino ez ditu emango eskolak. Seguruenik 2019-2020koa izango dute azken ikasturtea claretarren ordenako ikastetxean; Eusko Jaurlaritzarekin negoziatzen ari da ikasgela horientzako ituna.

Azken bost urteetan % 8 jaitsi da matrikulazioa Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskoletan. Adituek uste dute datozen urteetan antzeko joera izango dela. Biztanleriaren piramideak hautsi egingo du eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka. Eskola gehiegi egongo da aurki. Eta sindikatuek ez dute enplegua suntsitzerik nahi. Hain zuzen, hori da Kristau Eskolako lan gatazkan konpondu ezinik dabilzan arazoetako bat.

## URTE BIKO UMEAK ESKOLA GARRAIO BARIK, BERRIRO

Datorren ikasturtean, Haur Hezkuntzako lehen zikloko umeak —urte bikoak— eskolarako garraio publiko barik geratuko dira Araba, Bizkai eta Gipuzkoan. Hala salatu du EH Bilduko legebiltzarkide Rebeka Uberak. Ikasturte honen hasieran sortu zen gatazka, gurasoek euren seme-alabak garraio barik geratu zirela salatu zutenean. Gobernuak arazoa konpontzeko eta bi urteko umei ere eskola garraioa erabiltzeko eskubidea bermatzeko konpromisoa hartu zuen abenduan, legebiltzarrak eskatuta. “Jaurlaritzak ez du hitza bete, ez du aldatu eskola garraioa arautzeko dekretua, eta ikastetxeei jakinarazi die bi urteko ikasleek berez ez dutela eskubiderik garraio zerbitzua erabiltzeko”.

## JANGELETAKO GREBA HANDIA IZAN DELA DIO ELA-K

Apirilean grebara deituta egon dira zuzenean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarentzat diharduten eskola jangeletako beharginak, eta ELA sindikatuaren arabera, jarraipen “handia” izan du deialdiak. Sindikatu honen arabera, 8.000 emakume inguru dira Eusko Jaurlaritzak eskola-jantokietako kudeaketa zuzena egiteko azpikontrataturik dituen langileak. Aldarriei erantzunik eman ezeari borroka “indartzekotan” direla adierazi du.



## OHIKO IKASTAROEKIN BATERA, MAHAI- INGURUAK IZANGO DIRA HIK HASIREN 20. UDAKO TOPAPEKETAK OSPATZEKO



Aurtengo Udako Topaketak bereziak izango dira Hik Hasi egitasmo Pedagogikoarentzat. Izan ere, aurtun 20 urte beteko dira Hik Hasi-k Udako Topaketak lehen aldiz antolatu zituenetik. Urteurrena dela eta, topaketa bereziak izango dira, irakasleen formazioa ospakizunarekin uztartuko delako. Bi berrikuntza nagusi izango dira:

1. **Hezkuntzaren inguruan hausnartzeko mahai-inguruak** antolatu ditu Hik Hasik uztailaren 1erako, "Hezkuntza errealitate berrietara jauzi" izenburupean.
2. Uztailaren 2tik 4ra **ohiko topaketak** egingo dira, baina ohi baino gehiago izango dira, partaideen eskura ahalik eta aukera zabalena jartzeko.

Batetik, hezkuntzaren inguruan hausnartzeko jardunaldi berezi bat egingo da uztailaren 1ean Donostian. Bestetik, uztailaren 2tik 4ra eskainiko dira irakasle, guraso eta hezitzaileei zuzendutako ohiko ikastaroak, eta aurtun ohi baino ikastaro gehiago eskainiko dira; orotara 35, hain zuzen. Besteak beste, honako gaiak landuko dira: heziketa berdea, jolas-tokiak, pedagogia sistemikoa, heziketa emozionala, askatasunaren kudeaketa, Montessori pedagogia, mugak eta autoestimua, heriotzaren lanketa, dislexia, haurrak eta poesia, argiarekin jolasean, antzerki teknikak, sormena, jolas terapia, euskal mitologia, yoga eskolan, barnekotasuna... eta gehiago.

Ikastaroetan zein uztailaren 1eko jardunaldietan matrikula egiteko epea irekita dago jada. Izena eman edo informazio gehiago kontsultatu nahi dutenek, [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunera jo dezakete.

## ORAINDIK IZENA EMAN DAITEKE HAUR HEZKUNTZAKO FORMAZIOAN

Haur Hezkuntzako profesionalen prestakuntzan sakontzeko asmoz, haur txikiekin lanean aritzen diren hezitzaileei zuzenduta bi urteko formazioa eskainiko du Hik Hasi-k, zazpigarrenez. Ohi bezala, lehen ikasturtean Emmi Pikler-en oinarri teorikoak landuko dira. Bigarren ikasturtean, berriz, hainbat pedagogia berritzaileen ideiak jorratuko dira; Reggio Emilia, Waldorf eskola, pedagogia sistemikoa, Maria Montessori, heziketa berdea, Rebecca eta Mauricio Wild... Interesatuak oraindik izena eman dezakete ikastaroan eta aurtun, bi ikasturteetarako izena ematez gain, lehen ikasturterako bakarrik ere eman daiteke izena. Horretarako, interesatuak [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunera jo beharko dute.

## ERREFLEXU PRIMITIBOEN HONDARRIBIAN

Uztailaren 5etik 10era bitartean, Blomberg mugimendu erritmikoen eta erreflexu primitiboen inguruko formazioa eskainiko dute Hondarribiko Nova gune terapeutikoan. Hiru maila izango ditu formazioak: mugimendu erritmikoak eta erreflexu primitiboena da bata, emozioak eta barne-lidergoarena izango da bigarrena, eta irakurketa-idazketa prozesuaren baitako zailtasunena izango da hirugarrena. Informazio gehiago [www.fernandomorcillo.com](http://www.fernandomorcillo.com)-en.



# HIZPIDE IZANGO DA

## ARGAZKI LEHIAKETA ANTOLATU DU OLGETA JOLASERAKO BALIABIDE ZERBITZUAK



Arrasateko Olgeta Jolaseraiko Baliabide Zerbitzuak jolasa gai izango duen argazki lehiaketa antolatu du. Argazkietan jolasarekin lotutako elementu edo jarreraren bat azaldu beharko da: jolasa, jostailua edo jarrera. Jolasa ulertu eta bizitzeko era desberdinak argitara ekarri nahi dituzte lehiaketaren bidez. Parte-hartzaileei dagokionez, ez dago adin mugarik; deialdia haur, gazte zein helduei zuzenduta dago. Argazkiak jasotzeko epea maiatzaren 31n amaituko da eta hiru sari banatuko dituzte parte-hartzaileen artean: 80, 50 eta 30 euroko bonoak izango dira Olgeta dendan erabiltzeko. Lehiaketara aurkeztutako argazkiekin argazki erakusketa bat antolatuko dute 2020ko Jolasaren Nazioarteko Egunean.

## PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALEAN FORMAZIOA ESKAINIKO DU HIK HASI-K 2019-2020 IKASTURTEAN ERE

0 eta 6 urte bitarteko haurrekin lanean ari diren hezitzaileentzako *Psikomotrizitate erlazionala: aukera berdintasunerako eta emozioen lanketarako* formazioa eskainiko du Hik Hasik, hirugarrenez. Horretarako, gutxienez 13 laguneko eta gehienez 16 laguneko taldea osatu behar da.

Mapi Urresti Ortizek emango du formazioa. Psikomotrizista da Urresti, eta Kuttun psikologia eta osasun emozionalaren zentroko kidea da. 125 orduko formazioa antolatu du, "elkarrekin txertatzen diren hiru alor teoriko landuz": aukera berdintasuna, emozioen hezkuntza eta psikomotrizitate erlazionala. Teorikoki banatu arren, formazioan zehar hiru alor horiek momentu orotan egongo dira elkarrekintzan. Irailetik ekainera bitartean, hilero asteburu bat hartuko du formazioak.

Maiatzaren 6tik 31ra eman ahalko da izena. Matrikula egiteko eta prezioen inguruko informazioa eskuratzeko, [hikhasi.eus](http://hikhasi.eus) webgunera jo daiteke.

## INKLUSIO SOZIAL ETA HEZITZAILEARI BURUZKO I. NAZIOARTEKO KONGRESUA EGINGO DA UDAZKENEAN

Inklusio Sozial eta Hezitzaileari buruzko Nazioarteko I. Kongresua egingo da urriaren 24 eta 25ean Bilboko EHUren Bizkaia Aretoan. Kongresu honek, espresatzeko edota komunikatzeko zailtasunak dauzkaten pertsonak ditu jomuga gisa, berauen egoera aztertzeko eta esku-hartze hezitzaileak hobetzeko proposamenak jorrazteko. Kongresuak hiru ardatz nagusi ditu: hezkuntza testuinguruetako komunikazio sistema handigarriak eta alternatiboak; Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) hezkuntza testuinguruetan; esku-hartzea, eta horrelako edo bestelako komunikazio zailtasunak dituzten pertsonekin landutako pedagogia inklusiboak.

Euskal Herriko zein nazioarteko hainbat adituk parte hartuko dute jardunaldian eta besteak beste, inklusio soziala eta hezitzailearen inguruko hitzaldiak, konferentziak eta tailerrak eskainiko dira bi egunetan zehar.

Informazio gehiago eskuratu nahi dutenek edota izena emateko interesatuek [www.uik.eus](http://www.uik.eus) webgunera jo dezakete. Izena emateko epea dagoeneko irekita dago eta ekainaren 1a baino lehen matrikula egiten dutenek beharpena izango dute matrikulako prezioan. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleek eta ikasle eta langabetuek prezio bereziak izango dituzte.



Zientzia gizartearen aldaketarako eta aurrerapenerako motor bat dela kontuan izanda, herritar orok izan beharko luke zientziarako interesa. Horregatik, hasierako urteetan proposamen zientifikoak eskaintzea da, Montserrat Pedreira irakasle eta ikerlari kataluniarraren ustez, lehenengo urratsa. 'Zientzia espazioak aukera askean' izenburupean, formazioa eskaini berri du Azkoitiko Bizilore eskola aktiboan eta *hik hasik* bertan aipatutako ideiak eta gakoak jaso ditu erreportaje honetan.



# GAIA: ZIENTZIA TXIKITATIK

## Haurtzarotik fenomeno naturalekin esperimentatzen

Ingurunean dituzten objektu naturalak behatzea, esploratzea eta horiekin esperimentatzea oso berezkoa dute haur txikiek. Montserrat Pedreira Manresa-Uvic Unibersitat Central de Catalunyaoko Gizarte Zientzien fakultateko irakaslearentzat haurtzarotik bertatik joan daitezke pixkanaka eboluzionatzen ingurune naturaleko fenomeno horiek “begiratzeko moduak”, zientziatik gertuago egongo diren “begiratzeko moduetara”. Izan ere, ikastea, gizakiak jaiotzetik duen berezko behar bat da, eta Antonio Damasio neurologoaren definizioa dakar gogora: “Pertsona guztien instintu edo motibazio nagusiak dira gosea, egarria, kuriositatea eta esplorazioa, jolasa eta sexua”.

Idea horietatik abiatuta, Katalunian zientzia ezagutzak haurtzarora hurbiltzeko hainbat proiektu abian jartzearekin batera, espazio horietan haurren funtzionatzeko moduak ikertzen dihardute. Pedreirak ere jardun horretan dihardu eta Lab 0-6 zientzia espazioko arduraduna da. Manresako unibertsitatean kokatuta dago Lab 0-6 proiektua eta oraingoz aukera askean oinarritzen den zientzia espazioa da. Alta, lankidetzan ari dira Tarrasako Zientzia Museoaren barneko Explora 0-6 espazioan, Bartzelonako Els Encants eta Manresako Itaca eskolekin. Guztiak 0 eta 6 urte bitarteko haurrentzat prestatuak. Euskal Herrian izan berri da ikerlari kataluniarra, eta ‘Zientzia espazioak aukera askean’ izenburupean, Azkoitiko Bizilore eskola aktiboan

formazioa eskaini die hainbat irakasle eta hezitzailei.

Pedreirak azaltzen duenez, fenomenoekin, materialekin, objektuekin eta, oro har, naturako elementuekin harreman zuzena izatea ahalbidetzen die zientzia espazio batek haurrei, eta gaur egungo gizartean oso beharrezkoa dugu hori: “Jolasteko aukera izatea, mugitzekoa, material desberdinak probatzekoa, eta ekintza horiekin norbere ideiak lantzen joatea izango litzateke ardatza. Propio esperientzia horiek bizi nahi dituenak aurkituko ditu, baina nahiko ohikoa bihurtu da, gaur egun, larunbat arratsaldetan hipermerkatura joatea eta igandetan etxean gelditzea telebista ikusten, eta horrek objektuekin zuzeneko oso esperientzia eskasa ahalbidetzen du”.

Ildo beretik, eskolan ere gutxi jolastu dugula aipatzen du: “Ikusi ditugu heziketa zikloetako gazteak, 18-19 urtekoak, aireari buruzko jarduerak eta material desberdinak esku-ragarri jarri, eta geldirik geratzen, zer egin jakin gabe, norbaitek soluzio bat emateko edo zer egin behar zuten esateko zain, materiala probatzeko inizatibarik hartu gabe. Eta hori munduarekin gutxi jolastu dugulako gertatzen da, oro har. Funtzionatzeko modu horrek ez du laguntzen mundua ondo ulertzen, ez ikaskuntzan, eta ezta bizitza ondo bizitzeko moduan ere. Beti besteen mende gaudelako soluzioak bilatzeko momentuan”.

## GAIA:

# ZIENTZIA TXIKITATIK

Hautzarotik fenomeno naturalekin esperimentatzen

### Zer ezaugarri ditu aukera askeko zientzia espazio batek?

Zientzia espazio bat definitzeko garaian, honako definizioa erabiltzen du irakasleak: “Nagusiki material naturalekin osatutako espazioa da, identitate propiodun proposamen iradokitzailez hornitua, haurrei sarbide askea bermatuko diena, eta helduaren esku-hartze sotil batek ezaugarritzen duena, normalean bakarka edota talde txikian”. Zehatzago esanda, honako ezaugarriak izan behar ditu aukera askeko zientzia espazio batek Pedreiraren arabera:

- Aukera askean funtzionatzea.
- Moldaeraztasuna: proposamen desberdinak egitea eta proposamen horiek ahalik eta praktikoenak izatea.
- Materiala naturala, egunerokoa eta kalitatezkoa izatea.
- Giro eroso eta kontzentrazioa errazten duena.
- Ikasleei ekimena, autonomia eta erabakiak hartzea ahalbidetuko diena.

Pedreiraren esanetan, garrantzitsua da adin horri zuzendutako espazio bat egokitzerako garaian, hasieratik adin horretan pentsatuta aritzea: “Ez du balio zientzia arloko handiagoen espazio bat hartu eta txikiei egokitzea. Hasieratik izan behar du adin horrekin pentsatua”.

Hautzaroa, zientzia eta ikaskuntza uztartu ahal izateko, Pedreirak haurren ongizatea aipatzen du ikaskuntzari lotuta. “Proposamenak egiten dizkiegunean haurrak esploratzen hasten dira, jolasten hasten dira. Haurrek jolas bezala bizi dute prozesu hori eta garrantzitsua da hori. Esplorazioa eta jolasa egotea beharrezkoa da ongizatea egoteko, gure oinarrizko behar bat delako ikasteko beharra”. Zentzu horretan, haurrentzako jolasa den neurrian, helduek proposamen desberdinek ikaskuntzarako duten balioa kontrolatu dezakete.

Aukera askeko zientzia espazio bat diseinatu edo aurrera eramateko honako irizpideak lirateke Pedreirarentzat kontuan hartu beharrekoak: “Hasteko eta behin, zientziari lotutako ekintzak gertatu behar dira zientzia espazio batean. Bigarrenik, proposamenek haurrentzako zentzuzkoak izan behar dute; alegia, haurrak espaziora iritsi eta esploratzen hasteko modukoak, heldu baten presentzia beharrik gabe. Hirugarrenik, proposamenek ongi definitutako intenzionalitate argi bat izan behar dute, baina,aldi berean, irekiak ere izan behar dute hein batean, ustekabeko fenomenoak gertatzeko aukera ere izateko. Eta azkenik, proposamenetan erronka txikiak, sorpresak, galderak... egotea ere kontuan hartu beharrekoa izango litzateke”.

### Esperientzia, adierazpena eta eboluzioa 0-6 urte artean

Arlo honetan ebidentzietan oinarritutako ikerkuntzaren gabezia ikusita, aukera askeko zientzia espazioek haurren ongizatean eta ikaskuntza prozesuan eskaintzen dituzten aukerak eta mugak ikertu ditu Pedreirak, eta horretarako baliatu du bere doktore tesia. Hiru fasetan oinarritzen dira unibertsitateko irakasleak espazio honi lotuta ikertu dituen ikaskuntzarako prozesuak: esperientzia, ideien adierazpena eta eboluzioa. Ikerketaren arabera, aukera askeko zientzia espazio batek esperientzia zuzenak bizitzeko aukera asko eskaintzen ditu, ideiak adierazteko garaian ere lagungarria da, batez ere hizkuntzaren bidez, eta galdera berriak sortaraztea ahalbidetzen du, eboluziorako abiapuntua finkatzearekin batera.

Esperientziaren arloan egongo lirateke, esaterako, hurbilpen sensoriala eta esploratzeko ekintzak. Horiek ahalbidetzeko tresna desberdinak erabiltzea proposatzen du Pedreirak: “Adibidez, barazkiak tresna desberdinekin zan-





## GAIA: ZIENTZIA TXIKITATIK



patuz ura kolorez tindatu daiteke, eta gero, ateratzen diren tinta desberdinak koloreen erruberarekin alderatu daitezke, edota iragazkitik pasa daitezke ontzietan sartzeko; dinamometroak erabili daitezke pisuen arteko alderaketak egiteko; sukaldetxoan ere jolas sinbolikoaz gain, zientifikoa ere ahalbidetu daiteke, barazki desberdinak sartuta edo leka-leak, adibidez, beratzen utzita. Ugariak eta askotarikoak izan daitezke aukera askeko zientzia espazio batek haurrari eskaini diezaizkiokeen esperientzia zuzenak”.

Ideiak azaltzeko edo argi adierazteko gaitasuna lantzeko, berriz, erlazioak egiten laguntzen die gisa honetako zientzia espazio batek, eta objektuak ordenatzen dituzte, multzoetan. Zentzu honetan, Pedreirak ikasgela komunikaziorako espazio gisa erabiltzea aldarrikatzen du. Bere ustez, azalpenak ematen dituen irakasletik, hurrekin elkarriketaren aritzen den irakaslera pasatzea garrantzitsua da espazio honek benetako zentzua hartzeko. Eta azkenik, zerbait probokatu behar da, sorpresa ikaskuntzarako aktibo gisa erabiliz, galderak sorrazazi eta esperimendazioa sustatuz.

Hirugarrenik, ideien eboluzioa kuriositatea sortzen den abiapuntutik hasiko litzateke. Fase honetan, interesgarria da ideien kontrastea egitea: errealtatearekin, adituekin, berdinen artean... informazioaren kontsulta iturri desberdinen bidez egitea, alegia. Eboluzioaren aldiaren atentzio berezia jartzen dio Pedreirak helduaren rolari. Izan ere, helduaren zereginak izango dira proposamenak intenzionalitatez prestatzea, giro atsegina eta seguru bat bermatzea, haurren ekintzak balioan jartzea eta haurra ulertzen saia-

tzea esku-hartzearen beharra baloratu ahal izateko.

### Ezagutza zientifikora hurbilpena

Esperientzia desberdinen bidez ezagutza zientifikora hurbiltzen joatea izango litzateke gakoa adituarentzat: “Esperientzia gehiago duzunez, ideia desberdinak dituzten beste kideekin harremanetan jartzen zarelako, eta beste hainbat faktore tarteko, zure ideiak eboluzionatzen joango dira. Horrek ez du esan nahi, halere, egia zientifikora iritsi behar dugunik, edota komunitate zientifikoak pentsatzen duen bezala pentsatzera heldu behar dugunik. Eta hori izaten da askotan irakasleen kezka. Baina gogora ekarri behar dugu esperientzia hauekin prozesu batean murgilduta gaudela, gauzak pertzibitzen ditugun bezala adierazten ditugula askotan, baina era berean, ezagutza zientifikora hurbilpen bat egiten ari garela”. Esploratzearen eta esperimendatzearen arteko aldea aipatzen du Pedreirak ideia horri lotuta. Izan ere, bere ustez “esploratu guztiok egiten dugu, mugitu, ukitu eta probatu. Baina iristen da momentu bat egiten duzun froga edo mugimendu hori intenzionalitatez egiten duzuna. Horri deitzen zaio esperimendatzea. Eta nola lortzen da? Aukera anitzak izanda, eta horretan guk lagundu diezaiekegu, erronka txikiak ipiniz. Haur txikiek, hain garapen bizkorreko etapa horretan egonik, denbora behar dute helduek pentsatzen duten bezala pentsatzera iristeko”.

### Aukera askea taldeko dinamikekin osatuz

Lab 0-6 espazioak oraingoz aukera askeko eskaintza egiten du. Espazio honen arduradun gisa, Pedreirak dio horrek ongizatea eskaintzen diola haurrari: “Haur bakoitzak

## GAIA: ZIENTZIA TXIKITATIK

Hautzarotik fenomeno naturalekin esperimentatzen

aukeratzen du zer egin nahi duen, zeinekin, zenbat denbora pasatu nahi duen proposamen bakoitzean, eta berari iruditzen zaiona egiten du”. Bere atentzioa bereganatzen duen eta errealitatearekin esku-hartzeko gogoia sorrarazten dion material iradokitzailea dauka haurrak espazio honetan, eta beretzako denbora pertsonala izango da hori, trebatzeko, esperientzia hartzeko, elkarriketarako.

Edonola ere, horrek ez du esan nahi hori eskaintzearekin dena egina dagoenik: “Ezin dugu pentsatu edo ondorioztatu haur bat baratzean zerbait landatzen ari delako fotosintesia edo haztearen zikloa ikasiko duenik, hori ezinezkoa da. Laguntzarik gabe ez da hori jakitera iritsiko”. Horregatik, aukera askeko denbora taldeko dinamikarekin konbinatzea proposatzen du irakasleak: “Nik uste dut polita dela denbora pertsonala, erlaxatua eta zuk nahi duzun hori egitea ahalbidetzen dizuna uztartzea konpartitua den denborarekin, talde osoak helburu komun baten inguruan lan egin eta heldu batek gidatuko duen denborarekin, beti ere haurren ideietan eta ekarpenetan oinarritua bada. Hori ere erlaxatua eta lasaia izan daiteke, eta gainera, konpromisoa dago. Helburu komun bat daukazunean taldearekiko, eta batek egiten duenak besteak egiten duenari laguntzen dionean, prozesu hori oso aberatsa eta emankorra izango da”.

Zentzu horretan, abian duten Lab 0-6 proiektua ideia ho-

rretatik abiatuta osatzea litzateke Pedreirarentzat hurrengo erronka. “Oraingoz, aukera askean soilik eskaintzen da, baina gustatuko litzaziguke espazio honetan abiatzen denak, gero ikasgeletan nolako jarraipena duen jakitea, eta horietan laguntza eskaini eta elkarreraginean aritzea”.

### Haurrak unibertsitatean

Manresako Unibertsitatean bertan dago kokatuta Lab 0-6 espazioa eta egunero zabaltzen ditu ateak. Esan daiteke, beraz, ohikoa ez den arren, unibertsitate honetan haur txikiak badutela beren lekua. Haurrak unibertsitatean bertan egoteak ikerkuntzarako aukerak errazten dizkiela aipatzen du Pedreirak: “Unibertsitate gisa, gure helburuetako bat da haurrek nola ikasten duten ikertzea eta horretarako haurrak gure ondoan izateak asko errazten du praktika hori”.

Horrez gain, interesgarria iruditzen zaio unibertsitatean ikertzen denaren eta eskoletan gertatzen denaren artean hurbilpen bat egitea, “bakoitza bere aldetik ibili beharrean”. “Horrekin batera, gure helburuen artean dago, baita ere, jakintza erdiestea, baina jakintza ez geratzea gutxi bartzuen eskuetan, baizik eta inguruko hezkuntza komunitate osora zabaltzea. Eta azkenik, Haur Hezkuntzako irakasleen formatzaile garez, oso baliagarri zaigu espazioa gure ikasleek Haur Hezkuntzako haurrekin harreman zuzena izateko”.





# Proposamenak

Ugariak izan daitezke aukera askeko zientzia espazio batean egin daitezkeen proposamenak. Gaur egungo haurrak lehengoak baino hiritarragoak direla kontuan izanda, esperientzia birtual ugari izaten dituzte. Baina ez da berdina hondar-mahai batean haur batek eduki dezakeen esperientzia eta birtualki hondarra nola jaisten den ikustea. Pedreiraren arabera, zientzia guneetako esperientziak “ez dira hain erosoak, eta esfortzu handiagoa egin behar da esperientzia hauek eskaintzeko. Material naturalak izorratu egiten dira, esaterako, eta maiztasun handiagoz berritu behar izaten dira. Baina familiek gero eta bizitza estilo hiritarragoa duten honetan, haur txikiak inguruneke fenomeno naturalekin harreman zuzena eskainiko dien esperientziak bizitzea behar dute, inoiz baino gehiago, eta horretarako, askotariko proposamenak egin ditzakegu aukera askeko zientzia espazioetan”.

Gredos argitaletxearekin *50 propuestas para un espacio de ciencia en libre elección* (Aukera askeko zientzia espazio baterako 50 proposamen) liburua argitaratzeaz da Pedreiraren lan-taldea eta izenburuak iradokitzen duen moduan, txikiak zientzia arloko esperientziak bizitzeko proposamenen azalpenak eskainiko dituzte liburuaren bidez. Pedreirak zenbait proposamen zehatzen aipamena egin zuen Azkoitian eskaintako formazioan. Honakoak izan ziren:

- Zuloen modulua: tamaina desberdinetako zuloak eta horietan sartzeko material desberdinez osatutako baliabideak (handiak, txikiak, bigunak, gogorrak...)
- Hondarrezko gurpilak: sokekin lotutako gurpilak. Gurpil bat mugitzean, guztiak mugitzen dira. Akzio-erreakzioaren printzipioa lantzen du proposamenak.
- Bizidunak: esperientzia interesgarria izan daiteke, besteak beste, behaketaren bidez bizitzaren zikloa ulertzeko. Ikasgelarako baliagarri izan daitezkeen bi proposamen zehatzen aipamena egin zuen irakasleak: arrainontzia eta intsektu makilak.
- Piloten kanala: xesto batean pisu desberdinetako pilotak jartzen dira eta haizea egiteko instrumentu desberdinen bidez pilotak kanalean aurrera eraman behar dituzte haurrek.
- Hondar-mahaia: hondararekin esperimentatzeko aukera eskaintzen da proposamen honekin.
- Zibotak: mota desberdinetakoak jarriko dira, elkarren artean konparagarriak, eta saiatu behar dute ulertzen nola jiratzten den zibota.

- Argiarekin jolasak: argi-mahaiak, esaterako, argiarekin esperientzia desberdinak izateko aukera ahalbidetzen du.
- Uraren zirkuitu itxia: urarekin esperimentatzeko aukera eskaintzen du.
- Lupa: aukera askean komenigarria litzateke kopuru egokian eskaintzea.
- Balantzak: pisu desberdineko objektuekin erlazioak egiteko aukera ematen dute balantzek.
- Haziaren putzua: artoaren edota babaren haziak izan daitezke, adibidez, eta iragazki desberdinak eskaini ditzakegu tresna gisa.
- Imanezko horma eta giltzak: magnetismoa lantzeko baliagarria izan daiteke proposamen hau.
- Palankak: indarra eta erresistentzia bezalako ideietara hurbiltzeko aukera eskaintzen dute palankak.
- Maldak eta auto txikiak: inklinazioa eta abiadura lantzeko proposamena da; zenbat eta malda handiagoa, orduan eta azkarrago jaitsiko dira autoak.

Proposamenak egiterako orduan, gai bat oinarri hartzea gomendatzen du Pedreirak, eta gai horren barneko bideetatik jarraitzea, gai desberdin ugari ukitzen ibili beharrean. Gaiak asko eta asko izan daitezke, batzuk aipatzearen, honakoak adierazi ditu: airea, argia, magnetismoa, flotagarritasuna, espazioa eta materia, mugimendua...



GAIA:

## ZIENTZIA TXIKITATIK

Hautzarotik fenomeno naturalekin esperimentatzen

# Zientzia espazioak ebaluatzen

**E**spazio bidezko antolaketarako ebaluazio irizpidez ere hitz egin zuen Montserrat Pedreirak Azkoitian eskainitako formazioan. Bere ustez, lau printzipio hartu behar dira kontuan gisa honetako espazio baten ebaluazioa egiterako orduan: espazioa, batetik; egingidako proposamenak, bestetik; helduaren rola, hirugarrenik; eta azkenik, haurrei egiten zaien behaketa.

**Espazioa** ebaluatzerako orduan, honako ideiak izango lirateke ardatzak adituaren arabera:

- Estetika: espaziora sartzean, atsegina al da lehendabiziko sententzia? Espazioaren estetika zaindua al dago? Arreta desbideratzen duten elementuak badira (kolore biziak, beharrezkoak ez diren elementu edo irudiak)?
- Ordena: espazioa ordenatuta al dago? Objektuak logika baten arabera al daude antolatuta? Materialak edukiontzi egokietan kokatuta al daude?
- Estresik gabeko giroa: zarataren mailak kontzentrazioa ahalbidetzen al du? Haurren mugimendua lasaia al da?
- Ongizatea: haurrengan ongizateari lotutako espresioak nagusitzen dira edo ez? Haurrengan emoziorik nabari da?
- Materialak: aberastasun eta dibertsitate sensoriala ber-

matzen al da? Material naturalari garrantzia ematen al zaio? Materialaren erabilpen arriskutsuak edo ezegokiak antzematen al dira?

- Elkarrengatik: kolaborazio eta konplizitate jarrerak gertatzen al dira (imitazioa, behaketa, laguntza...). Gatazkak gertatzen al dira? Gatazkak identifikatzeak baldintzak eraldatzea ahalbidetzen du egoera horiek gutxiagotzeko.
- Komunikazioa: espazioaren antolaketak berdinen arteko komunikazioan laguntzen al du?
- Heldua: heldua lasai al dago? Bere esku-hartzeak erlatuak al dira? Modu lasaian mugitzen al da espazioan zehar?

**Proposamenak** ebaluatzeko orduan, berriz, kontuan hartu beharrekoa da proposamenak haurrentzako zentzuzkoak izatea, helduaren presentzia beharrik gabekoak. Horrekin batera, proposamenek intenzionalitate argia eta ondo definitua eduki behar dute Pedreiraren ustez, baina aldi berean, irekiak izan behar dute, ustekabeko gertaerek ere lekua izateko. Ondorengoak izango lirateke proposamenen ebaluaziorako galderak: Haurrei erabaki ezberdinak hartzea ahalbidetzen al zaie? Iniziatiba propioz ekintza berriak



## GAIA: ZIENTZIA TXIKITATIK

asmatzeko aukerarik ba al daukate? Materialak eta anto-lamenduak kuriositatea sortzen laguntzen al die? Haurren galderek epe luzeagorako bide ematen duten jakintzetara eramaten al gaituzte?


Irakasleak aipatzen duenez, “garrantzitsua da definitzea zer gertatzea nahi dugun. Horretarako kontzeptu eta prozesu zientifikoetan oinarritu daiteke proposamena. Eta horrekin batera honako galderak gehitu daitezke: gertatzea nahi genuena gertatzen al da? Beste zerbait interesgarria gertatzen al da?”

**Helduaren rola** izango litzateke aukera askeko zientzia espazio baten ebaluaziorako kontuan hartu beharreko hirugarren puntua Pedreirarentzat. Kasu honetan, helduaren rola definitzerako orduan, Goldschmied-en definizioa erabiltzen du: “esku-hartu bai, baina ez oztopatu”. Irakaslearen ustez, haurrekiko elkarrizketan oinarritu beharko luke helduaren esku-hartzeak, izan ere, horren arabera izango da haurraren erantzuna ere: “Zenbat eta elkarrizketa gehiago proposamenaren barnean, eta zenbat eta inizatiba gehiago ahalbidetu haurrengan, jasoko den erantzuna aktiboagoa izango da eta horrek ikaskuntza prozesuari mesede egingo dio”.

Ildo beretik, galderak egiteko moduaren inguruan ere gogoeta egitea proposatzen du irakasleak. Galdera irekiak egitea proposatzen du galdera itxien aurrean, besteak beste: erantzun askotarikoak ahalbidetzen dituztelako, haurren

pentsamendu dinamikoa garatzen laguntzen dutelako, haurren aurrezagutzak jasotzen laguntzen dutelako, eta jasotako erantzunen artean eztabaida eta alderaketak eragiten dituztelako. Era berean, galdera emankorrak lehenestea aldarrikatzen du, erantzun zehatzetan oinarritutakoen aldean: “Modu horretan erantzun kreatiboagoak, konplexuagoak, anitzagoak eta bere kriterioz justifikatuagoak lortuko dira”. Ildo beretik, maila kognitibo altuko galderak plazaratzearen aldekoa da, memorizazioan oinarritutako erantzunak bilatu beharrean. “Maila kognitibo altuko galderek ezagutzeko, ulertzeko, justifikatzeko eta arrazoitzeko gaitasuna garatzen laguntzen dute, baita pentsamendu kritikoa eta kreatiboa lantzen ere, eta erantzunak bilatzerako garaian, haurrak beraien ideiak azaltzeko modutik abiatzen direnez, ideia berriak txertatzeko lehen zituztenak berrikusi eta konexio berriak egin ditzakete”. Azkenik, pertsonetan oinarritutako galderak egitera animatu nahi ditu irakasleak, edukietan zentratutakoen aurrean, “modu horretan, partehartzeari eta ikaskuntzarako inplikazioari bidea irekitzen zaiolako”.

Bukatzeko, **haurrak** ebaluatzeko orduan, hiru alderdi nabarmentzen ditu Pedreirak: dimentsio metodologikoa izango litzateke bata, eta prozesu esperimentalen diseinuari eta aplikazioari egiten dio erreferentzia; bigarrena, jarrerazko dimentsioa, eta zientziarekiko haurrak duen jarrera hartzen du kontuan; eta hirugarrenik, dimentsio kontzeptuala, kontzeptu eta eredu zientifiko eta teknikoaren erabilpena, fenomenoak deskribatu, azaldu eta aurreikusteko.







“Aldagai psikologikoak indartuz  
hobetuko ditugu  
eskola-errendimendua eta  
eskola-inplikazioa”

# ELKARRIZKETA:

# OIHANE

# FERNANDEZ

---

## EHU-KO IRAKASLEA ETA IKERLARIA

Nerabeen eta gazteen eskola-errendimenduan eta eskola-inplikazioan zer faktorek eragiten duten aztertu du Oihane Fernandez Lasartek, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikor ikerketa taldeko ikertzaileak. Ikaslearen babes soziala, adimen emozionala eta autokontzeptua arrakasta akademikoarekin lotuta daudela baieztatu dute emaitzek. Horregatik, garrantzitsua iruditu zaio hiru kontzeptu horietan atentzioa jartzea eta horiek

indartzeari begira lan egitea eskola-komunitatea osatzen duten eragile guztiok. Ikerketak argi erakutsi du, halaber, alde nabarmena dagoela mutilen eta nesken artean, adimen emozionalari, autokontzeptuari eta eskola-egoerari dagokienez. Mutilek emaitza hobeak azaldu dituzte aldagai psikologikoetan, eta neskek, berriz, eskola-errendimenduan. Ikerketak emandakoaz luze eta zabal hitz egin du Fernandez Lasartek *hik hasirako*.





**Sostengu soziala, adimen emozionala eta autokontzeptua ikertu dituzu. Azalduko al dizkiguzu kontzeptu horiek?**

Sostengu soziala da ikaslea zaindua, baloratua eta maitatua sentitzea. Pertzepzio subjektiboa da, eta ikaslearen testuinguruarekin erlazioa duten faktoreek eragiten dute. Gure kasuan, irakasleak, familia eta lagunak ikertu ditugu. Sostengu sozialak funtzio askotarikoak ditu; informetzailea izan daiteke, orientatzailea, emozionala edota instrumentala, eta aldatzen joaten da bizitzan zehar. Adimen emozionala, berriz, Salovey eta Mayerren definizioari jarraituz, emozioak ulertzeko eta horiek erregulatzen jakiteko gaitasuna da. Eta, hirugarrenik, autokontzeptua da pertsona batek bere buruaz duen pertzepzioa.

**Behin hiru kontzeptuak definituta, nola eragiten dute eskola-errendimenduan eta eskola-inplikazioan?**

Ikerketa egiteko garaian, egiturazko eredu bat erabili dut, eta zenbait aldagai aztertu ditut eskema horren barnean. Aldagai ugari eragiten dute ikasleak arrakasta lortzeko

bidean; baina, nik hautatu dudan egiturazko ereduan, batetik, sostengu soziala, bestetik, aldagai psikologikoak eta, hirugarrenik, eskola-aldagaiak aztertu ditut. Ikerketako emaitzen arabera, ikusi da sostengu soziala eta aldagai psikologikoak (adimen emozionala eta autokontzeptua) zenbat eta hobek izan, hobea dela eskola-errendimendua eta eskola-inplikazioa. Beraz, erlazionatuta daudela ikusi da. Horregatik, ebaluazioa egiteko orduan prozesu guztia aztertzean eta prozesuari berari garrantzia ematean oinarritutako ideiak sendotu dira. Garrantzitsua da jakitea ikasleak nolako autokontzeptua duen bere buruaz, nola kudeatzen dituen bere emozioak eta testuinguruarekiko nolako pertzepzioa duen. Horregatik, garrantzitsua da hiru fokuhorietan atentzioa jartzea eta horiek indartzeari begira lan egitea eskola komunitatea osatzen duten eragile guztiok.

**Nola eragiten dute testuinguruko faktoreek? Zer mailatan?**

Ikusi da, adibidez, eragin gutxien erakutsi dutenak lagunak izan direla.

Literatura zientifikoaren berrikuspen teorikoa eginda, ikusten da lagunak askotan kanpoan egon daitezkeela, ez eskola-testuinguruan. Gainera, adin zail hauetan, lagunaren eragina ez da beti positiboa izaten, negatiboa ere izan daiteke. Aldiz, ikusi da familiak eragin positiboa eta handia daukala aldagai psikologikoetan, hau da, autokontzeptuan eta adimen emozionalean. Eta irakasleek eskola-aldagaietan eragiten dute gehien, eskola-errendimenduan eta eskola-inplikazioan, batez ere. Aldagai gehiago ere badaude, baina horiek dira argien atera direnak. Argi izan behar dugu guztiek eragiten dutela aldagai guztietan; baina batzuek eragin handiagoa dute batzuetan, eta besteek, berriz, beste batzuetan. Gero, salbuespen gisa, familiak eskola-aldagai jakin batean duen eragin nabarmena ere badago, eta ikaslearen itxaropen akademikoarekin dauka zerikusia horrek.

**Azaldu diezaguzu hori hobeto.**

Ikerketan argi ikusi dugu zeinen garrantzitsua den familiaren itxaropen akademikoa ikasketetan aurrera egiteko; hain zuzen ere ikasketekin



jarraitzeko eta ikasketak bukatzeko itxaropena edo helburua. Bestalde, ikusi dugu garrantzia handiagoa daukala gurasoen itxaropen akademikoak ikaslearen berarenak baino. Ikaslearen gurasoek semearen edo alabarengan sinesten badute eta jarraituko duela eta ikasketak bukatuko dituela pentsatzen badute, hori izango da helburu hori lortzeko haren bizitzan motorra. Uste izan da maila sozioekonomiko eta kultural jakin bateko ikasleek erraztasunak izan ditzaketela arlo horretan, eta izan daiteke zentzu batean; baina ikerketan ikusi da familiek lana, esfortzua eta horrelako balioak transmititzen badituzte eta beren semearengan edo alabarengan sinesten badute, garrantzitsuagoa izango dela hori, ikaslearen beraren itxaropen akademiko baino. Izan ere, adin horietako ikasleek oraindik ez dituzte guztiz garatuta autokontzeptua edota adimen emozionala. Horregatik esaten dut eskola-aldagaietan irakasleek dutela eragin handiena, baina, itxaropen akademikoan, familiak eragin dezake gehien. Garrantzitsua da horren jakitun izatea eta ideia hori transmititzea, horrek arrakasta akademikorako bidean jarriko dituelako ikasleak.

**Sexuaren arabera desberdintasunak atzeman dituzue, arrakastaren pertzepzioari lotuta. Gizarteak emaitza desberdinak espero ditu, genero-roleri dagokienez?**

Ikerketan ikusi da gizarteak gauza desberdinak espero dituela nesken-gandik eta mutilengandik. Ikusi da genero-estereotipoek eragina dutela pentsamenduan, sentimenduan eta jarreran. Neskek emaitza hobeak atera dituzte eskolako aldagai guztietan (eskola-inplikazioan, errendimenduan, itxaropenetan edota irakasleekin eta familiekin dituzten harremanetan, besteak beste). Neskengandik lan eta esfortzu handiagoa egitea espero da, eta hori islatzen da emaitzetan. Aldiz, mutilek emaitza hobeak atera dituzte aldagai psikologikoetan, hau da, autokontzeptuan eta adimen emozionalean. Autokontzeptua maila desberdinetan banatzen dugunean ere, genero-

estereotipoak agertzen zaizkigu. Mutilek hobeto ikusten dute beren burua matematikan, adibidez. Era berean, neskek autokontzeptu positibo hori hizkuntzei lotuta hauteman dezakete. Are gehiago, matematikan mutilek duten autokontzeptu positibo hori berezko zerbait bezala dago barneratuta. Izan ere, nahiz eta neskek errendimendu hobeak lortu matematikan, mutilek arlo horretan neskek baino autokontzeptu hobeak izaten jarraitzen dute, neskek emaitza hobeak lortzen dituztenean ere. Horrek erakusten du ebidentziek baino eragin handiagoa izaten dutela askotan estereotipoek.

**Eta nola eragiten dute genero-estereotipo horiek ikasleen adimen emozionalean?**

Adimen emozionalean, ikusi da neskek arreta handiagoa jartzen dietela emozioei. Emakumeak trebeagoak gara emozioei arreta jartzen; baina, teoriak diotenari jarraituz, kalitate handiagoz eta, aldi berean, kantitate handiagoz bizi ditugu. Orduan, kantitate horrek blokeatu egiten gaitu askotan, eta une horrek ez digu uzten emozioa ulertzen eta erregulatzeko. Mutilak, aldiz, ez dira galtzen emozio-kantitate handi horretan, eta unea iristen denean, hobeto uler edo erregula dezakete emozioa. Eta hori guztia genero-estereotipoekin dago lotuta.

**Eta zer gertatzen da sostengu sozialarekin?**

Genero-estereotipoen eraginez neskek testuinguruko faktoreekiko mendekotasun handiagoa dutela ikusi da. Eskola-parametroetan ere, gehiago espero da neskengandik babestuago, zainduago, maitatuago eta emozionalki garatuago daudelako. Mutilei, berriz, esaten zaie independenteak izan behar dutela, ez dutela erlazio sakonen beharrik, ez dute behar neskek adina zainduak, maitatuak eta babestuak sentitzea. Horren ondorioz, ikusi da mutilak, oro har, segurtasun handiagoarekin hazten direla, eta norberaren eraginkortasunari eta inteligentziari dagozkion faktoreak haiekin lotuta daudela. Genero estereotipoak hor daude,

“Eskola-aldagaietan irakasleek dute eragin handiena, baina, itxaropen akademikoan, familiak eragin dezake gehien. Garrantzitsua da horren jakitun izatea eta ideia hori transmititzea, horrek arrakasta akademikorako bidean jarriko dituelako”

“Ikerketan ikusi da gizarteak gauza desberdinak espero dituela neskengandik eta mutilengandik. Neskek emaitza hobeak atera dituzte eskolako aldagai guztietan (eskola-inplikazioan eta errendimenduan, besteak beste). Aldiz, mutilek emaitza hobeak atera dituzte aldagai psikologikoetan, hau da, autokontzeptuan eta adimen emozionalean”



eta ez diote mesederik egiten inori. Konturatu gabe, eskema zaharrak erreproduzitzen jarraitzen dugu, eta lan handia egin behar da oraindik egoera hori normalizatzeari begira.

### **Ikerketan, nerabezaroa eta gaztaroan zentratu zara. Arrazoi jakin batek eraman zaitu hautu hori egitera?**

Ikerketa-taldean, badugu asmoa aztergaiak aurreko etapetara eta ondorengoetara zabaltzeko, baina kasu honetan nerabezaroa eta gaztaroa hartu ditugu ikergai, adin horietan errazagoa delako ikerketa egitea. Aldagaiak finkatuago daudenez, gai dira beren pertzepzioak hobeto azaltzeko, eta hurbiltasunagatik ere jo dugu adin-tarte horietara. Azken batean, gaztaroari lotutako emaitza asko unibertsitatean dauden gure ikasleengandik jaso ditugu.

### **Nerabezaroa eta gaztaroa askotariko aldaketan garaiak direla aipatu duzu. Ikasketetarako garaizailenak al dira?**

Adin-tarte desberdinetan banatu ditugu nerabezaroa eta gaztaroa: 12-14 urte bitartekoa hasierako nerabezaroa izango litzateke; 15-17 urte bitartekoa, nerabezaroeko erdiko etapa; 18-20 urte bitartekoa, nerabezaroeko azken etapa; eta 21-40 urte bitartea gaztarotzat hartu dugu. Ikerketaren arabera, batez ere, nerabezaroeko erdiko etapa da ikasketetarako garaizailenetakoa, 15 urtetik 17ra bitartekoa, alegia. Kontuan izan behar dugu garaizailenak aldaketa asko gertatzen direla arlo guztietan. Handiak dira presio akademikoa eta lehiakortasuna, eta, arlo emozionalean eta autokontzeptuan ere, aldaketa asko bizi dituzte. Euren identitatea eratzeko lanetan, inde-

pendentzia lortu nahi dute gurasoengandik edo irakasleengandik, baina, aldi berean, haiek behar dituzte. Horregatik, desorekan daude etengabe. Faktore horiek guztiak eta beste zenbait tarteko, ikasleen emaitzek oro har behera egiten dute etapa horretan.

### **Unibertsitate-garaian berreskuratzen al dute egonkortasuna?**

Bai, aldagai guztiak lehengorutzen dira, edota hobera egiten dute, oro har. Baina, garaizailen lotuta, espero ez genuen zerbait aurkitu dugu ikerketan. Izan ere, unibertsitate-garaian eskola-implikazioak behera egiten duela ikusi dugu. Arreta, interes eta motibazio falta agertzen dira aldi honetan. Literatura zientifikoak dio lan mundura hurbiltzen hasteak sortzen dizkien zailtasunek eta zalantzek eragin diezaieketela horretan. Kontuan izan behar dugu, baita ere, inflazio akademikoa bete-betean sartuta gaudela; gero eta gehiago eskatzen zaie, baina, aldi berean, gero eta zailagoa ikusten dute lanpostu bat aurkitzea. Egiten dutena ez dela nahikoa konturatzen dira askotan, gehiago egin behar dutela, eta gainera, zertarako? Lan prekarioak izateko? Gogorra da egoera hori bizitzea, eta nik uste dut horrek ere eragina badaukala. Ez daukate panorama erraza, eta, beren alde, nik uste zor diegula hori aitortzea.

Bestalde, unibertsitate-garaian, harremanak ere ez dira izaten horren hurbilekoak, eta oso galduta sentitzen dira batzuk. Hor garrantzitsua da irakasleak ere sostengua eskaintzea; autonomia sustatu, bai, baina sostengua eman ere bai.

### **Autokontzeptuaren indarra aipatu duzu aldagai psikologiko gisa. Eta ikerketan ondorioztatu duzue adimen emozionalak autokontzeptua behar duela. Azalduko al zeniguke ideia hori?**

Adimen emozionala lotuta dago autokontzeptu on batekin. Ikusi duguna da adimen emozionala hobetzen den heinean eta autokontzeptua ere hobetzen bada horrek eragina duela eskola-aldagaietan. Gu ikaslearen barneko adimen

emozionalean zentratu gara, eta ez hainbeste besteekiko harremanean. Eta ikerketak erakutsi digu, adimen emozionala hobetzen denean eta aldi berean autokontzeptua hobetzen denean, hobera egiten dutela eskola-errendimenduak eta eskola-inplikazioak. Egiturazko eredu baten aurrean gaude, alegia, eta zaila da une jakin batean bata besteaz bereiztea. Teoriek eta programek erakusten dute adimen emozionala landuz lor daitekeela arrakasta akademikoa, baina ikasleekin adimen emozionala lantzen denean autokontzeptua ere hobetuko dela pentsatzera garamatza logikak. Ikasleekin emozioak ulertzeko eta kudeatzeko estrategiak lantzen badira, ikaslearen autokontzeptuak eta norberaren irudiak hobera egingo dute, eta seguruago sentituko dira. Bata hobetzen denean, bestea ere hobetzen da.

**Ikerketan ondorioztatu duzu irakasleak eta familiak funtsezkoak direla arrakastarako. Zergatik?**

Bai, argi ikusi da eskola eta familia funtsezkoak direla arrakasta lortzeko. Biak dira garrantzitsuak, arrakasta dakarten alderdi guztietan. Baina, ikerketak emandakoaren arabera, ikusten da nolabaiteko bereizketa bat badagoela eragin horren intentsitateari lotuta. Hau da, irakasleek bereziki eskola-aldagaietan eragiten dute gehien, eta familiaren eragina gehiago antzematen da aldagai psikologikoetan. Baina ez nuke nahi ideia hori gaizki interpretatzerik. Izan ere, intentsitatea markatze horrek ez du esan nahi, adibidez, irakasleek ez dituztela aldagai psikologikoak landu behar. Edota eskola-errendimenduaren eta eskola-inplikazioaren eragina irakasleen gain bakarrik utzi behar dutenik familiek. Ez da hori hemen planteatzen dena. Guztiek guztietan eragiten dute, eta hori ikusarazi nahi dugu. Familiak eragin handiagoa izango du aldagai psikologikoetan; baina, irakasleak ere asertibitatea, enpatia... lantzen baditu ikasleekin, horrek ere ikaslearen aldagai psikologikoetan eragina izatea lortuko du. Irakasle den aldetik, ikasleak gustura eta eskolan inplikaturik ego-

tea ere lortu behar du. Eta irakasleak eragina izango du horretan.

**Hezkuntza-arloa hausnarketaz, berrikuntzaz eta aldaketaz beteta dagoen garai hauetan, beharrezkoa ikusten al duzu aldagai psikologikoak ere ikastetxeko proiektuetan sartzea?**

Egia da curriculumak izugarriko pisua daukala Lehen Hezkuntzatik aurrera eta derrigorrezkoa den hezkuntzan. Curriculum-dekretuari jarraitu egin behar zaio, eta hor ditugu, baita ere, Euskal Curriculum osoa, indarrean daukagun Heziberrri 2020 dekretua, Lomce legea... Nahiz eta lehen edukiei eta orain gaitasunei garrantzia handiagoa eman, beti daude jarraitu beharreko gaitasun, helburu, eduki eta ebaluazio-irizpide batzuk, eta irakasleok horretan jarri behar izaten dugu gure jardunaren fokua. Horrek berarekin dakar, aldi berean, beste alderdi batzuk ez lantzea, adimen emozionala edota autokontzeptua, esate baterako. Eta jakinda eskola-errendimenduan eta inplikazioan eragina duten alderdiak direla, iruditzen zait jarraibideetan aldaketa bat egin beharko litzatekeela eta aldagai horiek eskolako proiektu eta planetan ere sartu behar liratekeela.

**Eskola porrotarekin badu zerikusirik horrek?**

Argi dago, berez, adimen kognitibo altuagoa daukanak pribilegio bat izan dezakeela, baina kontuan izan behar dugu ez dela hori arrakasta bermatuko duen alderdi bakarra. Izan ere, hor ditugu lana, esfortzua eta emozioa ere, eta, ikaslea emozionalki ondo ez badago edota ez badu autokontzeptu positibo bat, blokeoa egon daiteke hor; eta eskola-porrotera eraman dezake horrek. Horregatik, garrantzitsua da eskola-errendimenduan eta -inplikazioan eragina duten alderdi guztiak kontuan hartzea. Eskolan, tamalez, denbora faltagatik edo daukagun presioarengatik -ikuskatzailea datorrelako edo edukiak eman behar ditugulako, besteak beste-, alderdi bat da lantzen dena, eta aldagai psikologikoen alderdia jorratu gabe

“Adimen emozionala lotuta dago autokontzeptu on batekin. Ikusi duguna da adimen emozionala hobetzen den heinean eta autokontzeptua ere hobetzen bada horrek eragina duela eskola-aldagaietan”

“Irakasleek bereziki eskola-aldagaietan eragiten dute gehien, eta familiaren eragina gehiago antzematen da aldagai psikologikoetan”

“Eskolan, tamalez, denbora faltagatik edo daukagun presioarengatik -ikuskatzailea datorrelako edo edukiak eman behar ditugulako, besteak beste-, alderdi bat da lantzen dena, eta aldagai psikologikoen alderdia jorratu gabe geratzen da maiz”





geratzen da maiz. Oso garrantzitsua da aldagai horiek lantzea, bizi-tza guztian funtzionamendu ona izaten lagunduko baitugu horrek, bai eta leku desberdinetara egokitzen eta eskola-porrota desagerrarazten ere.

### **Garrantzitsua izango da irakasleen prestakuntzan ere alderdi horiek lantzea?**

Bai, garrantzitsua da irakasleen prestakuntzan alderdi horiek lantzea. Azken batean, etorkizunean irakasle izango direnek beren burua ondo landuta eta aztertuta izan behar dute. Nik neure burua ondo ezagutzen ez badut, autokontzeptu positibo bat lantzen ez badut, ez banaiz trebea adimen emozionalean eta ez badiot denbora eskaintzen horri, ikasleei ez dizkiet alderdi horrekin lotutako ideiak transmitituko haiekin nagoenean, eta, askotan, ez dugu jakingo zer den nirea eta zer besteena. Eta, askotan, hortik datoz gatazkak, ez bakarrik ikasleekin, baita familiekin ere. Horregatik, oso garrantzitsua da irakasle izango direnek autokontzeptua eta adimen emozionala lantzea,

gero familiekin eta beste lankideekin bilera onak egiteko, modu asertiboan eta enpatiaz jokatzuz, talkarik eta gatazkarik izan ez dadin, eta izaten badira, modu eraikitzailean kudea daitezten, guztiok ikas dezagun eta guztiontzat aberasgarri izan dadin. Horrela, guztiek noranzko berean lan egin ahal izango dute, eta ikasleari hobeto lagunduko zaio, arrakasta lortzeko bidean.

### **Aipatu duzu ingurunean ditugun pertsona esanguratsuekin izandako harremanean eratzten dela autokontzeptua. Baina modu positiboan eragiteko ze lanketa gutxi egin dugun helduok oro har, ezta?**

Oso lanketa gutxi egin dugu. Ez gara trebatu, ez gara seguru sentitzen, eta, ez garenez seguru sentitzen, ez gara ausartzen. Ezagutzen ez dugun alderdi bat denez, beldurra daukagu, eta askorentzat hobe da *ebitatiboa* izatea aktiboa izatea baino. Baina erantzukizuna eta ardura irakasleonek ere badira, eta ikasleei eta familiekin kalitate zor diegu, baita geure buruari ere. Horregatik, izugarri garrantzitsua da

irakasleen funtzioa; aldagai psikologikoak indartzeko, sostengu emozionala emateko, funtzio informatzailea betetzeko... Eta, eskola-aldagaiei lotuta, halaber, metodologia aktibo eta berritzaileak aplikatzeko, ikasleen motibazioa eta interesa pizten lagunduko duen prestakuntza jasotzeko, harreman onak izaten ikasteko, edota euren irudia eta emozioak kudeatzen ikasten laguntzeko. Horregatik guztiagatik, gure ikasleekin autokontzeptua, askotariko adimenak, adimen emozionala, asertibitatea, enpatia, balioak, aniztasuna, bizikidetzeta eta horrelako balioak lantzen eta transmititzen saiatzen gara. Pentsamendu kritikoa lantzen dugu gure eskolako jardunean, eta horretarako hausnarketak eta eztabaidak egiten ditugu. Esango nuke gaur egungo irakasle-ikasle arteko paradigma gehiago dela sozio-kritikoa, eta erlazioak ere hurbilagokoak dira gure kasuan, bederen. Ikasleei bidea egiten lagunduko diegun gidariak gara irakasleak, eta bidean topatuko ditugun askotariko elementuak lantzeko eta kudeatzeko prestatuta egon behar dugu.

IL GRANDE  
**BIDEO**  
L'ESPRESSO



Il grande bideo è un'opera d'arte che ha fatto scandalo in tutto il mondo. È un'opera che ha fatto scandalo in tutto il mondo. È un'opera che ha fatto scandalo in tutto il mondo.

**IL GRANDE BIDEO** - L'ESPRESSO



# ESPERIENTZIAK 1

HERRIA HOBETO EZAGUTZEKO IKASMATERIALA

## Hurretik hasita urrunera iristeko

Hurretik hasi eta urruneraino joan gaitzke ikasketa prozesuan. Garrantzitsua baita urrunekoa ikastea, baina bertakoa ahaztu barik. Ideia horri heldu diote Oñatin hezkuntza arloko proiektu berri bati ekiteko. Herriko eragile desberdinen artean, Oñatiko ondarea transmititzeko ikasmateriala sortu dute LH1 eta LH2ko ikasleentzako. Materiala, gainera, euskarri digitalean jarri dute, *hurretik.eus* webgunean.

**H**urretik proiektua Oñatiko ikastetxeek zuten behar zehatz bati erantzuteko asmoarekin sortu zen duela bi urte. Izan ere, Oñatiko ondare kulturala transmititzeko zailtasunak zituztela ohartu ziren; ikastetxeek egiten zuten transmisio lana, baina bakoitzak bere modura eta inolako patroirik gabe. Modu bateratuan lan egin asmoz eta guztiak baliabide eta informazio iturri fidagarriak erabiltzeko helburuarekin jaio zen Hurretik. Hala, prozesuari buru-belarri



heldu zioten eta erronkaz betetako bidea egiten hasi. Aipatutako helburu nagusia lortzeko bi oinarri finko izendatu zituzten: arlo didaktikoa eta arlo soziala. Bi arloak konbinatuz ekin zioten Oñatiko Herri Curriculuma sortzeko prozesuari.

Oñatiren inguruko hainbat ezaugarri erakusten zaie ikasleei herriko ikastetxeetan: Oñati non kokatuta dagoen, ondoko herriak zeintzuk diren, ze mendik inguratzen duen edo zein errekak zeharkatzen duen. Gainera, Natura Eskola eta Turismo Bulegotik egiten dituzten irteeren bidez ere jasotzen dute herriari buruzko informazioa. Orain, Hurretik egitasmoarekin harago joan nahi izan dute. Esaterako, Oñatiko ohiturak, pertsonaiak, edota pasarte historikoak jasotzea eta horiek ikasleen artean zabaltzea izan da xedea eta horretarako material didaktikoa sortu dute.

Udalarekin batera, herriko hiru ikastetxeak eta Euskaltzaleen Topagunea aritu dira proiektua gauzatzen eta dagoeneko egitasmoa abian da eskuletan. Sustatzaileek aipatu dutenez, Lehen Hezkuntzako lehen bi mailatan hasi dira ikasmateriala lantzen eta gero ikusi beharko da beste mailetako ikasleentzako ere prestatuko duten.

Ikasmaterial guztia sarean jarri dute, edozein momentutan kontsultatu ahal izateko moduan. Hurretik.eus webgunean dago eskuragarri material didaktikoa eta ataria etengabe elikatzen joateko asmoa agertu dute sustatzaileek. Webguneak edozein momentutan informazioa gehitzeko aukera eskaintzen du eta horrela aberastuko dute proiektua.

### **Herritarren parte-hartzea ardatz**

Hurretik egitasmoa, hala ere, ez da ikastetxeetara bakarrik mugatu. Gainerako herritarrengana ere iritsi gura izan dute, herritarren parte-hartzearekin aberastu nahi izan dutelako proiektua. Antolatzaileen arabera, azken batean oñatiarrek esan beharko dute zer jakin behar duten gazteek Oñatiri buruz, eta helburu hori lortzeko, tertulia saioak egin dituzte. Herritarren parte-hartzea emankorra izan da eta 60 pertsonatik gora izan dira saioetan. Horrez gain, egitasmoaren zabalpenerako egin zuten 'Hurretik gala'-ren bidez herriko antzokia jendez betetzea lortu zuten.

### **8 unitateen aurkezpena**

Orotara 8 unitate didaktiko garatu dituzte eta baliabide ugari prestatu



dituzte guztiak jorrazteko. Jarduera desberdinen bidez, herriko ondareari erreferentzia egiten dioten kontzeptu desberdinak lantzen dira. Horretarako, prozedura desberdinak proposatzen dira unitate bakoitzean, hala nola, ikasleen aurreiritziak detektatzea, istorioak sortzea, beraiek sortutako antzerki lan bat interpretatzea, bat-batekotasuna lantzea, hedabide bat sortzea, pentsamendua marraztea, asanbladan ideiak partekatu eta baloratzea, norbere emozioak identifikatzea, edota trasmisiorako bideo bat sortzea, batzuk aipatzearen. Ondorengoak izango lirateke 8 unitate didaktikoen berezitasunak:

- **Antzinako Oñati**

1. **Oñatiko arkeologoak:** jarduera desberdinen bidez, unitate didaktiko honetan aintzinatean Oñatiri erreferentzia egiten dioten berezitasunak lantzea proposatzen da: aintzinako objektuen ezaugarriak, arkeologoen funtzioak, erreplikak...
2. **Oñatiko xamanak:** herriko landaredia ezagutu eta bertako xamanen ezaugarriak hobeto ulertzeko aukera eskainiko zaie ikasleei unitate honen bidez.
3. **Oñatiko jolas biltzaileak:** aiton-amonon garaiko jolasen aurrezagitza partekatuzetik abiatu eta jolas berri bat asmatzea izango da unitate honen azken xedea.
4. **Oñatiko antzinako hizkuntza:** unitate didaktiko honen bidez, arbasoen hizkuntzara hurbilduko dira ikasleak eta Oñatiko leku-izenak landuko dituzte. Amaieran, historiaurreko giza-talde baten pasarte bat errepresentatuko dute koadro batean.

- **Erdi Aroko Oñati**

5. **Eskolako berriak:** Erdi Aroan Oñatin erabiltzen ziren komunikazio-bideak alderatuko dituzte egungoekin, eta hedabide berri bat sortzea izango da azken xedea.
6. **Gebatarren lurra:** Erdi Aroko Oñatiko jendarte egitura landuko da unitate honetako jardueren bidez, eta garai hartako botere-harremanen erreproduzio



bat egin ondoren, hausnarketa kolektiboa egitea proposatzen da. Gatazken kudeaketari erreferentzia egiteko sekuentzia izango da.

7. **Oñatiko sutea:** 1489an Oñatin gertatu zen sutea abiapuntu hartuta, transmisioaren garrantziari helduko zaio unitate honetan. Horri lotuta, LH 6. mailakoen laguntzarekin ikasleek bideo bat grabatu eta editatzea proposatzen da.
8. **Oñatiko gertakizunak abesti:** Oñatiko bertso zaharrak hizpide izango dituzte azken unitate didaktiko honetan, eta modu honetan, antzinako transmisio bideak ezagutuko dituzte. Horrekin

baterra, eurek nahi duten gertakizunari musika jartzea izango da azken xedea.

**Bide beretik aurrera egiteko asmoa**

Hasieran finkatutako asmo nagusiak beteta direla, sustatzaileek diote ondo legokeela bide beretik urratsak ematen jarraitzea: “Hurretik proiektuak egin du bide bat. Esan genezake froga moduko bat izan dela, eta bi urte hauetako emaitza emankorra izan dela. Orain ikusi beharko da zein den ikastetxeen feedbacka eta horren arabera finkatu hurrengo lan-ildoak. Proiektuaren parte izan diren eragile guztiengan ikusi da lanean jarraitzeko nahia badagoea”.

# ESPERIENTZIAK 2

'HAURREN TAILERRA' HAUR ESKOLA KOLONBIAN

## La Esperanza kooperatibako kideek Euskal Herriko hezkuntza esperientziak ezagutu dituzte

Kolonbiako Cauca departamentuan eredu kooperatiboan oinarrituriko haur eskola bat sortzeko lanean ari dira La Esperanza kooperatibako kideak; bertako komunitateetako kideek nahiz FARC-eko emakume borrokalari ohiek osatzen dute taldea. Proiektu pilotua izango da, eta herrialdeko beste 26 komunitatetara zabaldu nahi dute ondoren.



**K**olonbiatik Euskal Herrira bidaia egin dute apirillean La Esperanza kooperatibako hainbat kideek zenbait euskal hezkuntza-proiektu bisitatzeko, beren herrialdean abian jarri nahi duten haur-eskolarako baliagarriak izan daitezkeen esperientziak, ideiak, ereduak ezagutu asmoz. *Haurren tailerra* proiektua dute eskuartean, 0 eta 5 urte arteko umeentzako doako haur-eskola sortzea helburu, beti ere

eredu kooperatibo batean oinarrituta. Kolonbiako Cauca departamentuan kokatuko da haur eskola, La Elvira zonaldean, eta inguruetako komunitateetako haurrei ez ezik, FARC-eko gerrilari ohien seme-alabei leku egitea nahi dute bertan. Izan ere, La Esperanza kooperatiba FARC-en borrokan ibilitako hainbat emakumek sortua da.

“Gure asmoa da haur-eskolaren lana komunitateek egiten duten

lanarekin uztartzea, haurrak modu alternatibo batean hezteko. Horregatik gaude hemen, Euskal Herriko esperientziak ezagutu eta bertan ikasitakoa gure herrialdean aplikatu ahal izateko, komunitateekin elkarlanean. Balioak dituen belaunaldi berri bat eraiki nahi dugu, bakean sinesten duena, bakea nahi duen gizarte bat sortzeko”, azaltzen du Darly Sanchezek, haur-eskola berrian hezitzaile izango den lagunetako batek. Euskal



Herrian esperientzia interesgarriak ezagutu dituztela dio, eta bereziki deitu die arreta ikastoletan abian den Konfiantzaren Pedagogiak. Dena dela, Juan Camilo Londoñok zehazten duen moduan, aurrean duten erronketako bat izango dute hemen ikusitakoa eta ikasitakoa “gure herrialdearen gizarte, kultura eta geografia baldintzetara egokitzea”.

#### **Batetik hamaika sortu**

Ez da erronka bakarra izango, ordea. Izan ere, proiektu pilotua da La Esperanza kooperatibak Caucan abiatua, eta oinarriak ondo zehaztea eta proiektu arrakastatsua sortzea dute helburu, ondoren eredu hori Kolonbiako beste hainbat zonalde-tara zabaltzeko. “Armarik gabeko bizitzara edo armarik gabeko borrokara egin genuen ibilbidean, 26 zonaldeetan kokatu ginen, eta horietan abiatu genuen armagabete-prozesua. Baina FARC-en baitan ginenean 100 unitatetan banatuta geunden, beste hainbeste erregiotan. Gutxi gorabehera geneukan lurralde antolaketa horri erantzunez eta gure oinarri sozialarekin bat eginez, orain arte 127 kooperatiba sortu ditugu”, dio Londoñok. Horiek ondoren Ecomun izeneko kooperatiba batean

biltzen dira, eta horrek kudeatzen eta antolatzen du FARC-eko gerrilari ohiak lan eta gizarte mundura berriro txertatzeko jarduna. “*Haurren tailerra* proiektuak ere helburu horri erantzuten dionez, besteak beste, espero dugu pilotu hau ondoren beste zonalde batzuetan errepikatzea. Ederra lizateke beste 127 kooperatiba horietara eramatea, baina hasieran zaila izango da”, Londoñoren esanetan.

Sare horren bidez, zonalde horietako haurrei bestelako hezkuntza bat ematea dute helburu. Izan ere, Kolonbiako hezkuntza-sistema publikoak “boterean dagoen klasearen beharrei erantzuten die”, Londoñok salatzen duenez, eta “ez dugu nahi gure haurrak kapitalari sumisioko logika batean heziak izatea, beren herriarekiko gorrotoan. Beraz, pedagogia eta hezkuntza eredu propio bat sortu nahi dugu, gure elkartasun, askatasun balioak berreskuratuko dituen, eta ahalbidetuko duena bestelako subjektu politiko bat sortzen hastea, posizio politikoa eta kritikarako gaitasuna izango duena, eta erabakiak hartzeko gai izango dena”.

Horrenbestez, oraingoz haur eskolabaten sorreran jarri badituzte ere indarrak, luzera begirako xede dute

hezkuntza-aro guztia hartuko duen eredu bat sortzea, unibertsitate-raino. “Orain egindako bisitetan batik bat lehen haurtzaroan jarri dugu arreta, baina ikastolen proiektu kooperatiboaren baitan Lehen eta Bigarren Hezkuntzako esperientziak ere ezagutu ditugu, eta Mondragon Unibertsitatean ere izan gara. Ulertu dugu nolabaiteko autonomia duen proiektu hau sortzeko aurretik 40 urteko prozesu bat egin dela. Beraz, guk ere ezingo dugu hilabete batzuen buruan unibertsitate kooperatibo bat martxan jarri, baina gure helburua izango da norabide horretan lan egitea”, Londoñoren hitzetan.

#### **Finantzaketaren korapiloa**

Euskal Herriko bisita amaitzean Italiara abiatzeko da kolonbiar taldea. Izan ere, herrialde horretako Friuli erregioan kokatzen den Noncello kooperatiba sozialari esker lortu dute *Haurren tailerra* proiektua abian jartzeko 2 urterako finantzaketa, eta hara ere egingo dute bisita. Horretaz gain, Venecia aldean ere izango dira, Reggio Emiliako ereduan oinarritzen diren eskola txiki batzuk bisitatzen. Italiatik bueltan Katalunian egingo dute azken geldialdia, hainbat hezkuntza-proiektu bisitatzeko.



# EKARPENAK

HERIOTZARI BURUZKO ERAKUSKETA

## Heriotza aurrez aurre

Heriotzaren tabua haustea, haren gainean hausnartzea eta heriotzaren fenomeno gerturatzea dira Donostian zabaldu berri duten *Heriotza*<sup>1</sup> erakusketaren helburu nagusiak. Jose Angel Achon Deustuko Unibertsitateko katedradunak egin ditu komisariotza-lanak, eta lan horien emaitza da hemengo zein kanpotik ekarritako piezekin osatu den erakusketa ederra. Katalogoan kontsultatu daitekeen bezala, sei ataletan antolatuta dago bilduma, zeinetan kontuan hartzen diren pertsonak heriotzaren aurrean izan dituen eta dituen jarrerak: *Irudikatu*, *Beldurra*, *Erritual*, *Zentzua bilatzea*, *Heriotzatik itzultzea* eta *Utopiak*.



IDOIA SARA

Irakaslea

**O**raingo honetan, beraz, San Telmo museoak aukera paregabea eskaintzen digu heriotzaren gaia joratzeko. Erakusketaz gain, martxoaren 13tik maiatzaren 26ra bitartean, jarduerak osagarri ugari antolatu dituzte; irakasleei, familiei eta orotariko publikoari zuzentzen zaizkie jarduerak horiek. Horien artean, *Death café* proposamena dugu, non heriotzari buruz mintzatzeko abagunea ematen zaigun, kafearen edo tearen lurruntan eta bizkotxo zati bat eskuetan dugu; izan ere, gutxi izaten dira patxa-

daz herioaz aritzeko ditugun aukerak. Gehienetan, heriotza gertatutakoan hitz egiten da soilik, emozionalki korapilatsuak diren une mingarrietan; sosegurik gabeko uneetan, beraz.

Sexuaren tabua gaindituta, heriotza bihurtu da nonbait XXI. mendeko tabu handia, gai honen inguruan ez baita naturaltasunez hitz egiten. Hamaika arrazoi egon daitezke, tartean: ezjakintasuna, beldurra, gustu txarrekotzat hartzea, etab. Badira tabuaren ideiarekin guztiz bat ez datozenak ere, heriotzari buruz inoiz baino gehiago hitz egiten dela diotenak. Maila politikoan, esaterako, eutanasiari edota heriotza-prozesuei buruzko eztabaidak areagotzen ari dira azken urteotan, baina gaia behar bezala gizarteratu gabe. Hernández Arias (2000) filosofoak dio gaur egun heriotzak *misterio* izateari utzi diola *arazo* bilakatzeko, ez baitugu heriotzaren esentziari buruz hausnartzen.

Egun, eraiketak eta suntsiketak ikuskizun bilakatu dira zenbaitetan. Duela gutxi, adibidez, Zeelanda Berrian, bi meskitaren aurkako erasoaren zuzeneko irudiak eman zituen hiltzaileak sare sozialetan, bideo-joko bat bailitz bezala, gorputzari atxikita zeraman kameraren bidez. 50 bat pertsonaren heriotza eragin zuen erasoaldiak, eta beste horrenbeste zauritu izan ziren. Murturreko adibidea dugu hori, baina zer pentsatua eman dezake. Zenbat eta zenbat irudi ikusten ditugun prentsan, telebistan, sakelakoetan, etab.

<sup>1</sup> Erakusketaren izen osoa, hiru eletan: *Heriotza. Ante la muerte. Face à la mort.*

inolako iragazkirik gabe. Edonoren eskura (baita haurren eta gazteen eskura ere) dauden hildakoen irudiek heriotzaren hutsaltzea ekar dezakete, eta heriotzaren esentziatik urruntzen gaituzte. Horren aurrean haurrek plazaratzen dituzten galderi erantzuteko, lasaitzeko asmotan edo, “guri hemen ez zaigu halakorik gertatuko; urruneko kontuak dira” eta horrelako mezuak helarazten dizkiegu behin baino gehiagotan, heriotza eragiten duten gatazken gaineko hausnarketa bultzatzeko baliatu beharrean. Kasu honetan, hausnarketarik gabeko gehiegizko informazioak babesik gabe uzten ditu haurrak, helduak, eta beldurrari bidea irekitzen zaio. Helduok ez daukagu, noski, galdera guztien erantzunik, baina, zintzoki gure usteak plazaratuz gero, eredu bilakatu gaitezke elkarrizketari ekinaz; bere buruari galdetzen dion pertsonaren eredu, alegia.

Dena dela, garbi dago gizakiarentzat heriotzak erabateko garrantzia duela, heriotzarik gabe ez baitago bizitzarik, eta txanpon beraren bi aurpegiak baino ez direla. Heriotza, beraz, edozein unetan, edozein adinetan, ustekabean edota gaixotasun baten ondorioz gerta daiteke.

Joan Carles Mèlich (2003) filosofoak dio heriotzaren esperientzia gizatasunaren jatorrian berean dagoela; jai bezain laster hiltzen hasten gare-

la. Neska-mutikoak txiki-txikitandik hasiko dira horretaz konturatzen, nahiz eta heriotzak bere osotasunean zer ekartzen duen ezin ulertu eta intuizio moduko bat besterik ez izan. Hortaz, haurrei fenomeno hau ezkutatu nahi izatea euren buruari bizkar ematea da, giza esentzia bera ukatzea. Hau da, haurrek bizirik dagoen guztia noizbait hilko dela antzematen dute berehala, eta, hezkuntza oso eta integratzaile baten alde egin nahi bada, eskolak aintzat hartu beharko lituzke aurretiazko ezagutza horiek.

#### Heriotzaren pedagogiaren beharra

Zentzu horretan, heriotzaren pedagogiaren beharra dugu, eta irakasleonek erantzukizuna da eskolan hausnarketa zintzo bati ekitea. Heriotzaren aurrean jarrera-aldaketa bat sustatzen den neurrian, bizitza osatuago baten aldeko hautua egiten baita.

Agustín de la Herránek eta Mar Cortinak (2006) diote, gure eskoletan heriotzaren gaia eduki orokor gisa aintzat hartzen ez dugun bitartean, modu normalizatuan eta egunerokoan sartzen ez dugun bitartean, ez dugula erabat bizitzen irakatsiko, ez baikara osotasunean biziko; eta iritzi berekoak gara gu ere. Azken batean, heriotzaren pedagogiaren bitartez, errealitatera egokitzen ikasten da; norberak eta gizakiak oro har dituen mugak onartzen laguntzen du; nor-


**Heriotzaren pedagogiaren bitartez errealitatera egokitzen ikasten da; norberak eta gizakiak oro har dituen mugak onartzen laguntzen du; norberaren beldurrak gainditzeko aukera ematen du, eta barne-hazkundera gauzatzen da.**

beraren beldurrak gainditzeko aukera ematen du, eta barne-hazkundera gauzatzen da.

Ildo beretik, William Kroenek (2002) dio, heriotzari buruz edota heriotzak bere baitan dakarren minari buruz hitz egiten dugunean, oinarriko zutabeak jartzen ari garela pertsona emozionalki osasuntsu hezteko; besteak beste, norberak dituen beldurrak adierazteko aukera dagoenean, emozioen lanketan aurrerapauso handia ematen delako.

Baina helduak, lehenik eta behin, barne-hausnarketari ekin beharko lioke, haurrekin hitz egiteko hain beharrezkoa den sosegua eta ezagueraz izateko. Helduok gure beldurrak haurrengan proiektatzen baditugu, baliabide propioak garatzeko aukera mugatzen diegu (Izagirre, 2003).

Baina gure gizartearen ereduaren barnean, gero eta zailagoa da heriotza ulertzea. Ongizateari lotuta, “gaztetasun betierekoaren ideia” sustatzen da, eta helduaroan gazte izatearen itxura proiektatzea helburu bilakatu da askotan. Era berean, medikuntzaren garapenarekin batera, gaixotasun askori aurre egitea lortu da, eta bizi-



**Gure gizarteak higienizazio-prozesu bat bultzatu duela esan dezakegu, eta hil-zorian dagoena haurren begi-bistatik at gelditzen da. Egoera horretan, zaila da heriotza bizitzaren eta naturaren parte dela ulertzea.**

iraupena areagotu egin da urte gutxitan. Batzuetan, bizitzaren kalitateari begiratu baino, luze bizitzeari eman zaio lehentasuna. Gauzak horrela, heriotza ekar dezakeen hori (gaixotasuna, zahartzarora, urteengatiko narriadura) saihesten dugu askotan, eta haurrei ahal dela ezkutatu egiten zaie heriotza bera ere.

Oro har, ospitaleetan igarotzen dira heriotza-prozesuak. Gure gizarteak higienizazio-prozesu bat bultzatu duela esan dezakegu, eta hil-zorian dagoena haurren begi-bistatik at gelditzen da. Egoera horretan, zaila da heriotza bizitzaren eta naturaren parte dela ulertzea. Josu Cabodevillak eta bestek (2008) esaten duten modura, helduok pentsatu ohi dugu,



oker pentsatu ere, heriotzak erakar dezakeen sufrimendutik aldentu behar ditugula haurrak, emozionalki ahulak direlako babestu egin behar ditugula. Baina, babestu beharrean, babesik gabe uzten ditugu, gertakari eta errealtateaz jabetu gabe ezin dituztelako beharrezkoak diren baliabideak garatu; dolu- edota galera-egoerei behar bezala aurre egiteko eredurik gabe uzten ditugu. Aldiz, heriotzak edo gaixotasunak erakar dezakeen saminaz naturaltasunez eta zintzotasunez hitz egiten badugu, etorkizunerako zutabeak jartzen ari gara, haurrari tresna baliagarriak ematen dizkiogulako edozein dolu-egoeratan estrategia pertsonalak garatzeko. Irakasleon zeregina da haurraren konfiantza izatea eta euren teoria propioak eraikitzeke gai direla aitortzea.

Rodolfo Ramosek eta Patricia Acinasek (2010) ere heriotzaren pedagogiaren beharraz hitz egiten dute. Prebentzioaren alde egiten dute, dolu-prozesuak bilakaera egokia izan dezan eta kanpoko laguntza espezializatu beharko lukeen dolu traumatikoa saihestu dadin.

Finean, hezkuntza *humanizatu*-goaren alde egiteko urgentzia dugu. Hilkortasun-kontzientziarekin bizitzaren ikasteak, besteak beste, lagun dezake heriotza edota edozein galera esanguratsuen aurrean prestatuago egoten, *humanizatzen* gaituelako eta bizitzaren zentzuaren inguruko oinarritzko auziak planteatzen dituelako. Osasuntsu hazi eta hezi ahal izateko, beharrezkoa dugu bizitzak biltzen dituen galera txiki eta handi guztiak integratzea (Ducay, 2003).

Hilkortasun-kontzientziak *maitasun* kontzeptuaren esanahia zabaltzen laguntzen du, eta sentimenduak adierazi beharra agerian uzten du; gauzen balioa erlatibizatzen du, eta ditugun horiek baloratzen eta zaintzen lagundu dezake.

Baina gertuko galerek izen-abizenak izaten dituzte, eta oso zaila eta mingarria zaigu gertuko pertsona baten heriotza onartzea, baita ulertzea ere askotan. Lotura sendo eta garrantzitsu baten hausturak sufrimendu handia ekarri ohi du, eta gizakiaren izana eta existentzia beraren oina-

rriak kolokan jartzen ditu. Horrek eragin handia izaten du oinarritzko erlazioetan (Ripoll, 2005). Orobat, jakina da bestearen heriotzak mina eragiten duen bitartean, norberarenak beldurra eragiten duela eta beldur hori unibertsal dela. Kulturak eta erlijioek errito, azalpen eta, finean, ukazio eta onarpen modu ugari garatu dituzte. Pello Lizarralde (2008) idazlearen arabera, lagun hurkoaren heriotzak asaldatzea ekartzen digu, gure heriotza begien aurrean jartzen digulako.

Laburbilduz, heriotza munduko hainbat kulturatan nola irudikatu izan den erakusten digu San Telmo Museoak, objektu, artelan, argazki, dokumentu, komiki eta abarren bitartez. Horrez gain, heriotzaren fenomenoari aurre egiteko erabili diren erritu, ohitura eta sinesmenak erakusten dizkigu. Azken batean, garaian garaiko eta tokian tokiko pertsonen interpretazioak eta ereduak ezagutuz, bai eta festaren eta fantasiaren bitartez ere, gure ikuspegia bera aberasten da.

### Erreferentziak

- Bucay, J. (2003). *El camino de las lágrimas*. Barcelona: Mondadori.
- Cabodevilla, J. et al. (2008). *Dolua haurrengan*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Cortina, M., De la Herrán, A. (2008). "La educación para la muerte como ámbito formativo: más allá del duelo". *Psicooncología*, 5 (2-3), 409-424.
- Hernández Arias, J.R., Saric, E. (2000). *La muerte. Una antología*. Madrid: Valdemar.
- Izagirre, P. (2003). "Heriotza heziketan". *Hik Hasi*, 12. monografikoa.
- Lizarralde, P. *Iragaitzaz* liburuen aurkezpena. Diario de Noticias, 2008ko ekainaren 13an.
- Kroen, W. C. (2002). *Cómo ayudar a los niños a afrontar la pérdida de un ser querido*. Barcelona: Oniro.
- Ramos, R., Acinas, P. (2009). *Las estrellas fugaces no conceden deseos*. Madrid: TEA.
- Ripoll, J. *El proceso del duelo en los adultos*. Senda Fundazioa-ILZ, Iruñea, 2005eko azarora.
- San Telmo Museoa. KONTZULTA EGUNA, 2019-3-19: <https://www.santelmomuseoa.eus/index.php?lang=eu>
- Sarasola, A. "Bizitzaz, heriotzaz bezainbeste". Berria, 2019ko martxoaren 13an.





hh  
hik hasi

## HAUR HEZKUNTZAKO hezitzaileentzat formazioa (7. promozioa) *plaza batzuk geratzen dira oraindik*

- + 1. Hastapena - 2019-2020 IS-3. urteak. **EMMI FOLLER** peditoren elkarri berriketa izango da jantziak den lida pedagogiko nagusia: **ZMIRKETRA, MUGIMENDU JASAK, LINA, FERINO, KUBINETA, JAYOROLAN, SOFIA, OAZPIRA**, eta abar izan daitezke.
- + 2. Hastapena - 2020-2021 IS-6. urteak. Hainbat pedagogia beritzaile eta eraldatzaile eragupatek dira: **LINA MALAGUTZI** eta Regge Emilia, **RUDOLF STEINER** eta Waldorf eskola, **ANITA MONTSCHILD**, Pedagogia Sistemikoa, Heziketa berdea, **REBECA** eta **MALPICO WILD**...
- + Erkartzurteetako edukia praktika zirkonferentzia dinamizazio **FORMAZIO PERTSONALAREN** aztertuko da.

(Elkartzurteak eta ikasgaiak eredu ikasgaiterako berrak dira eta ez dira inongo ikasgaiak)

Informazioa eta matrículoak [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) helbidean

# GALDEIDAZU

## NOLA JAR DAITEKE PRAKTIKAN ARGIAREN PEDAGOGIA ESKOLA BATEAN? ZER BEHAR DA?

**G**aur egun, hezkuntzaren zientzia gisa ulertzen da pedagogia. Pedagogiak hezkuntzaren barruan beste diziplina batzuen eragina ere baduenez, ordea, zientzia gisa ulertzeaz gain, arte gisa ere hartu izan da maiz. Argiaren pedagogiak artearen, zientziaren eta argiaren efektuen baitako hezkuntza biltzen ditu. Horiek guztiak batuta, haurraren garapenean eta ikasteko eta irakasteko prozesuetan diziplinarteko begirada txertatzea dugu helburu.

Argiarekin jolastea behar naturala da. Antzinako Erroman efektu naturalen zergatia ulertzeko mito eta istorioak asmatzen zituzten moduan, gaur egungo haurrek ere munduari buruzko hipotesiak eraikitzen dituzte. Horretarako, galderetan eta ikerlanean oinarritutako ikerkuntza-bide bat eraikitzen dute. Betiere, haurra inguratzen duen testuingurua aberatsa bada eta helduaren presentzia afektiboa bertututa badago. Horixe baita haurraren erreferentziazko helduaren zeregina: erantzun larregi eman gabe, galdera egokiak egitea eta, haurrak bere kabuz deskubritu edo aurkituko duena aurreratu gabe, ikerketa-prozesurako bide egokiak aurreikustea, antolatzea, behatzea eta ebaluatzea.

Konfuziok esana da honako hau: *“Kontatu egin zidaten, eta ahaztu egin nuen. Ikusi egin nuen, eta ulertu egin nuen. Egin egin nuen, eta ikasi egin nuen”*.



### ITSASO PAGOAGA

#### Hezitzailea eta Olgeta-ko arduraduna



#### Argia haurtzaroan

Argia egunerokoan haurren zein helduen bizitzan presentzia nabarmena duen elementua da. Eguzkiaren argia izan daiteke oinarritzakoena (Euskal Herrian nahi baino gutxiago izan arren), baina hor ditugu kandelen argi kulunkari eta goxoak edota objektu artifizialek eragindako argiak: bonbillak, mugikorrak, esku-argiak, etab. Horietako bakoitzak edertasun konkretu bat eskaintzen digu, arlo estetikoari erreparatuz gero, eta aukera ugari eskaintzen dizkigu, alderdi ludikoaren ikuspuntutik ere.

Esan genezake, beraz, argiaren pedagogiak etengabeko presentzia duela haurraren bizitzan. Argia egunero sartzen baita leihotik. Eta gela zeharkatzen duen bidean barna, marrazki ugari sortzen ditu; giroa bete edo goxatu egiten du, edota hustu, hoztu... Arrastoa utz lezake, edota bat-batean desagertu... Egunerokoan sortzen den giroa hertsiki lotuta dago argiarekin; baldintzatu egiten du.

Finean, **argiaren pedagogiaren** gakoak argiarekin (naturala zein artifiziala) jolastea da, espazio eta jardueren kolore eta izaera askotarikoak eskainiz.

Argitasunaren munduaren aurkikuntza norberaren aurkikuntza-prozesuarekin loturik dago. Norberaren gorputza, besteena, ingurua, materialak, horien portaerak... oharkabean gertatzen dira, larregi pentsatu gabe.

Haurren arreta bereganatzen duen itzal bat izan liteke abiapuntua, eta, hortik aurrera, edozein material, aurkezpen, lantegi edota proposamen izan liteke balekoa.

Zeintzuk izan daitezke **argi naturalekin** egin genitzakeen jolas edota proposamenak?

- Hainbat materialetan sortzen diren itzalak ezagutu (cd-ak, ispilua, zelofanezko paperak...).
- Ostadarra sortu, cd zahar batekin eta esku-argi batekin.
- Itzalak aurkitu edo marraztu, edota horiek ehizatzen saiatu.
- Hainbat elementuren proiektzioak egin (eraikuntza-bloke zeharrargiekin, koloreztaturako urarekin...).
- Material naturalez (lehortutako hosto eta fruta zatiak) egindako collage bat leihoan zintzilatu, eta eguzki-izpiek hura gurutzatzean sortzen diren itzal eta formei behatu, horiek aurkitu, marraztu... Finean, horiekin jolastu.

Eta zeintzuk izan daitezke **argi artifizialekin** egin genitzakeen jolas edota proposamenak?

- Argiaren propietate edota ezaugarriak aurkitu eta ezagutu (argiaren ibilbidea, norabidea, isla, errefrakzioa, etab.). Finean, argia bere osotasunean ezagutu. Nola? Urez betetako edalontzi batean makila luze bat sartzen denean makila nola hausten den behatu, edota koilara baten alde bakoitzean sortzen den islari behatu. Zergatik da desberdina alde bakoitzean sortzen den isla, begira ari den pertsona bera bada?
- Material gardenak, opakak edota zeharrargiak erabiliz horien itzalak aurkitu. Zer gertatzen da horietako bakoitzarekin? Zergatik da desberdina material bakoitzak sortzen duen itzala?
- Esku-argiekin itzalak egin eskuarekin, ipuinak kontatu, etab.

### Argiarekin jolasean gabiltzanean sortzen denaz...

Esan beharra dago horrelako proposamenak ludikoak eta erakargarriak direla argiaren, kolorearen edota itzalen

funtzionamenduari buruzko jakintzak edo edukiak transmititzeko edota barneratzeko. Modu inkontziente eta arbitrarioan, haurrek argiaren ezaugarriekin jolas egiten dute: ispiluan begiratzean, objektuen islapen-efektua aztertzen dute, edota koilararekin jolastean, alde batekin alderantziz ikusten dutela ohartzen dira. Jostailuzko animalia bat eta esku-argi bat elkartuz gero zer gertatzen den ikertzen dute; edo zer gertatzen den esku-argia gerturatzean, urruntzean, itzalak eraginez, tamainan distantziak duen eraginaz jabetuz, etab. Edota cd bati argi eginez, paretan ostadarraren isla aurkitzen dute. Eta horrela etengabe!

Ohartu gabe, esperimendazioan oinarritutako ezagutza zientifiko baten eraikuntzan murgiltzen dira, zentzuzko ikertzaile bilakatuz. Horrela, hazi ahala eta fenomeno horiek izendatzeko ordua iristean, haurrek munduaren funtzionamendua errazago ulertuko eta izendatuko dute, edozein eduki abstraktu buruz ikasteko beharrik izan gabe.

Zentzu horixe du, hain zuzen, **argiarekin jolas egiteak**. Izan ere, argiarekin jolasean gabiltzanean, oharkabean bada ere argiaren fisika aurkitzeaz ari gara, argiaren optika, artea eta gainerrako guztia aurkitzeaz.


Gainera, argi-iturri konkretu batekin, argi-mahaiarekin adibidez, jolasean (lanean) ari garenean, arreta guztia han zentratzen da, jarduera horretan, alegia. Kasu horretan, argi-mahaiak,

Argiaren pedagogiaren gakoa argiarekin (naturala zein artifiziala) jolastea da, espazio eta jardueri kolore eta izaera askotarikoak eskainiz. Eta ohartu gabe, esperimendazioan oinarritutako ezagutza zientifiko baten eraikuntzan murgiltzen dira haurrak, zentzuzko ikertzaile bilakatuz.

erretroproiektoreak, fokuak... ekintza-aren babesleku edota euskarri bilakatzen dira. Ekintzari eusten diote, haren euskarri dira... Jolasa eta arrazamendua garatzeko espazioa eskaintzen dute, mugak ongi definituz.

**Argiarekin jolastea** ekintza zientifiko, ludiko, sortzaile eta artistiko bilakatzen da. Guztiz irekia, globalizatzailea, integrala, diziplinartekotasuna sustatzen duena modu estetiko eder eta armoniatu batez.

Argiaren efektupean, eguneroko edozein objektu eraldatu egiten da. Edozein objektu erretroproiektorean edo argi-mahaietan ipiniz gero, beste edertasun bat hartzen du. Argiak





## GALDEIDAZU: ARGIAREN PEDAGOGIA

magia-puntua ematen dio, eta erakar-garritasun osoz betetzen du materiala edo proposamena.

Gainera, jolas sentsorialean pauso bat aurrerago ematea adierazten du argiak, beste edozein egoeratan suertatu ezin daitekeen edertasun bisuala eskaintzen baitu.

### Argiarekin jolasteko euskarriak eta materialak

Argiaren pedagogia entzuteaz bat, argi-mahaia datorkigu burura segituan. Eta, sarri, argiaren pedagogia horretara mugatzeko joera izan dugu, batez ere ezagutza eta prestakuntza faltagatik. Egia da horixe dela argiaren pedagogiaren baitan ezagunen bilakatu den argi-euskarria. Baina, argi-mahaitik harago, argi-mundu bat dago, eta makina bat euskarri erabil genitzake argiarekin jolasteko eta argi-jolas proposamenak egiteko orduan.

Lehenik eta behin, **argi naturala** eta artifiziala bereiztea komeni da. Izan ere, maiz entzun izan dut eskola batzuetan honako hau: “Gure eskolan, ez dugu baliabide ekonomikorik argiaren pedagogia txertatzen hasteko”. Eta, horren aurrean, harrিতuta geratzen naiz; izan ere, denok dugu eskura doakoa den argi-euskarri garrantzitsuenetarikoa: eguzki-argia edo argi naturala. Inguratzen gaituen horretan arreta pixka bat jartzea dagokigu, argiarekin eta kasu honetan eguzki-argiarekin jolasteko proposamen interesgarriak egin ditzakegula konturatzeko. Eskolan zein etxean egin ditzakegu, gainera.

Horretaz gain, kontuan izan behar dugu sua ere argi naturala dela. Eta aurretiazko prestaketa eta antolaketa egoki batekin, jolaserako oso elementu goxoa izan daiteke, guztiz magikoa izateaz gain. Hor ditugu, adibidez, tamaina, kolore eta usain askotako kandelak. Itzalak egiteko, ipuin bat goxo irakurtzeko edota, besterik gabe, haren itzal mugikorrari behatzeko eta gozatzeko.

Bestalde, **argi artifiziala** dugu, eta haren barruan ia mundu bat kabitzen dela ere esan genezake; esku-argiak, erretroproiektoreak, proiektore digitalak, kolore, tamaina edo mugimendu askotako bonbillak, tamaina, forma eta argi askotako argi-mahaiak, negatioskopioak (erradiografiak ikusteko aparatu zaharrak), diapositibak ikusteko makinak, argi beltzak...

Ez dira denak beharrezkoak, baina horietariko bakoitzak jolaserako eta esperimenezko askotariko esperientziak eskaintzen ditu. Testuinguru bakoitzeko baliabide eta beharren arabera batzuk edo besteak aukeratu beharko genituzke. Horixe izango da gakoa.

### Argiaren pedagogian espazioak duen garrantzia

Dagoeneko hezkuntzaren munduan jakinikoa da espazioak duen garrantzia. Sarri entzun izan dugu espazioa bera dela hirugarren hezitzailea haurren ikaste-prozesuan. Antolaketaren arabera emozio eta sentsazio desberdinak iradokitzen eta sortzen dituen dimentsio bat baita espazioa, hizkuntza pro-

pioa duena. Edwart T. Hall antropologoak ezkutuko dimentsioaz hitz egin zuen, eta gizakiok espazio eta denborarekin dugun harremana ikertu zuen. Ikerketa horren arabera, zera baieztatu zuen: giza jarrera espazioaren eta denboraren dimentsio ezkutuen arabera erregulatzen da.

Ildo horretatik, makina bat eskola ari dira espazioaren antolaketan hausnarketa abiatu eta eraldaketarako urratsak egiten. Bejondeiela! Baina nolakoa izan behar du argiarekin jolasteko espazioak eskolan? Espazioa antolatzeko orduan eskola mailan erabiltzen ditugun irizpideak aplikagarriak al dira kasu honetan? Bada, erantzuna ezezkoa da. Argiarekin jolasteko espazioek, gainerakoek bezala, espazio aberats, atsegin eta armoniatsuak izan behar dute. Haurren hizkuntza eta jolas guztiak ahalbidetu eta onartu behar ditu, eta aberatsa izango da alderdi guztietarako.

Argiarekin jolasteko espazioek magikoak izan behar dute; **kolore** eta **argiarekin** jolasteko espazioak dira, eta, beraz, espazioaren parte aktibo izan behar dute bi elementu horiek. Espazio horietan, argia eta distira dira ikur nagusiak, eta, horregatik, oso koloretsuak izan ohi dira argiarekin jolasteko espazioak. Eskoletako espazioen antolaketarako kolore-hautaketarako irizpidea kolore neutroa erabiltzea da; horixe da gaur egungo joera nagusia. Bada, zentzu horretan, argiarekin jolasteko espazioetan, koloreak, distirak eta fluoreszentiak dira nagusi.

Hori bai, argiarekin jolasteko jarduerak **aurkezteko modua** ere aztertu behar da. Garrantzitsuak dira ordena, oreka eta zentzua hor ere. Lehen aipatu dudanez, kolorea eta distira dira elementu nagusiak jolaserako espazio horietan. Baina ordena ahaztu gabe. Hau da, jarduera baterako material koloretsuak aurkezterako orduan gama kromatikoari jarraitzeak ordena bisual eta estetikoaren sorraraziko du.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat espazioaren **argitasun edo iluntasun maila** izango da. Argi-mahai, esku-argi edota erretroproiektorearekin jolasteko espazio iluna behar dela uste izan da askotan, baina ez da guztiz horrela. Egia da iluntasun pixka batek argiaren efektuak biderkatzen



dituela, baina ez da derrigorrezkoa iluntasun osoa izatea. Gainera, oso ilunak diren espazioek ez dute aukerarik uzten argi naturalarekin jolasteko.

Horretaz gain, Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako ikasleekin lanean dihardugunean, aurreikusi behar genituzke iluntasunak sorrarazi ditzakeen egonezin eta beldurrak ere. Beraz, argi beltzarekin jolasteko jarduerak antolatu ezean, argitasun maila batzuk onar genitzake, haurrak eroso eta seguru senti daitezzen.

Espazioaren antolaketarekin amaitzeko, interesgarria da aurrez gainerrako beste alderdi hauez ere hausnartzea:

- Nolakoa izango da jolasteko erabiliko dugun espazioa? Argi-laborategi bat izango da, gelako mikroespazio bat, jarduera puntual bat...?
- Espazioan zein eta zenbat argi-euskarri erabiliko ditugu?
- Nola kokatuko ditugu argi-euskarriak, horizontalean, bertikalean (negatoskopioak), leihoetan (material gardenak)?
- Zer-nolako materialak erabiliko ditugu argiarekin jolasteko? Denak izango dira gardenak, zeharrargiak, baina koloretakoak, opakak? Denetik pixka bat? Nola aurkeztuko ditugu material horiek? Zenbat izango dira? Gogoratu aniztasuna garrantzitsua dela, baina aniztasunak ez duela kantitateaz asko esan nahi.
- Espazio horretan ezarriko dugu jarduera edo proposamenak mugatzeko elementurik? Alfondrak, mahaiak, errezelak edota altzariak, adibidez.
- Ispiluak erabiliko ditugu? Zergatik eta zer jolas-proposamenetan?
- Jolas-proposamen bakoitzaren denbora, maiztasuna eta aldi bereko erabiltzaile kopurua zenbatekoa izango da?

Ikusten duzuen bezala, makinatxo bat alderdi dira argiarekin jolasean hasi aurretik hezitzaile garen aldetik pentsatu beharko ditugunak. Beste kontu bat izango da eskolako kanpo-espazioan argiarekin jolasteko aukera bat-batean sortzen bada. Horrek ere badu bere grazia, magia. Ez al duzue

uste? Eta bat-bateko esperientzia eta jolas horri ere bide eman behar diogu gaur egungo eskolan.

### Argiaren pedagogia bai, baina nondik hasi?

Argiarekin lotutako jolas-proposamenak eta materialen irudiak ikustean, denok liluratzen gara pixka bat, eta berehala horiekin hasteko desiratzen egoten gara. Baina, gaiaren inguruan arakutzen hasiz gero, lehen zantzaz sortzen da: nondik hasiko gara?

Dagoeneko hasi gara argi-mahaiarekin jarduerak eskaintzen, baina ateratzen ote diogu nahikoa etekin? Sarri, hezitzaile ugari gerturatzen zaizkit antzeko galderekin. Eta erantzuna oso sinplea da. Nik hiru pausotan zehaztuko nituzke aurrera begirakoak:

1. **Prestakuntza:** beti bezala, ezezaguna eta berria zaigunaren aurrean ezagutza eta prestakuntza dira gakoak. Eta, kasu honetan, teoriarekin uztartutako eta bizipenetan oinarritutako prestakuntza praktikoei emango nieke garrantzia. Kasu honetan, ez du zerikusirik argiaren pedagogiari buruzko eduki- eta jarduera-proposamenak irakurtzeak edota horiek jolasean probatu eta ezagutzeak.
2. **Eskura ditugun argi-baliabideekin eta baliabide materialekin hasi.** Argi naturala, esku-argiak, cd zaharrak, zelofanak, kartoizko kaxak, plastikoak... Eskura ditugun eta gastu asko ez dakarkiguten jarduera eta materialekin hasi. Izan ere, hor


Kolorea eta distira dira elementu nagusiak jolaserako espazioetan. Eta horrekin batera, kontuan hartu behar dira aurkezteko modua eta argitasun edo iluntasun maila.

ikusi edo atzemango ditugu hurrena gastatu beharrekoak. Puntu honetan ere, aipatzekoa da DIY filosofia aplikatzea (*Do It Yourself* edo *zuk zeuk egin* filosofia). Material polit askoak sortu baikenitzake (Oharra: Argi-mahaiak egitea pentsatuz gero, arreta jarri argi motetan eta euskarrietan. Ez daitezela arriskuak izan begietarako, eta ez daitezela hauskorak izan).

3. Eskolako hezitzaileen artean, **adostu** zein izango den argiaren pedagogiak eskolako hezkuntza-proiektuan izango duen lekua. Hori adostu eta aurreko pausoak egin ondoren, has gintezke gure argi-laborategiak edo argiarekin jolasteko mikroespazioak erakitzen eta materialez hornitzen.

Hala ere, kontuan izan hau proposamen bat besterik ez dela, eta onena norberak bere ibilbidea egitea dela, testuinguruko errealitatea eta beharrak aintzat hartuta.

Argitu eta kolorezta ditzagun, beraz, eskolak!





2019-2020 ikasburtako egutegia

Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua	Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31					

Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua	Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31					

Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua	Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31					

**IRAILA**  
16 - 17 - 18  
**ABUZTUA**  
1 - 2 - 3 - 4 - 5 - 6 - 7 - 8 - 9 - 10 - 11 - 12

Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua	Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31					

Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua	Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31					

Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua	Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31					

**ABUZTUA**  
13 - 14 - 15 - 16  
**IRAILA**  
1 - 2 - 3 - 4 - 5 - 6 - 7 - 8 - 9 - 10 - 11 - 12

Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua	Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31					

Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua	Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31					

Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua	Iraila	Ostaila	Azaroa	Azotikoa	Abuztua	Abuztua
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31					



# ARGITALPENAK




## GURDI HANDIA

J.M. Olaizola 'Txiliku' / Eider Eibar

### ELKAR

Munduan beste asko bezala, behin batean baziren baserri batean bi idi, eta haietako bat zen zuria, eta bestea gorria. Idietako batek, zuriak, egin zuen: "Muu!". Eta besteak, gorriak: "Marruu!". Eta gau batez, etorri ziren bi lapur, eta eraman zituzten bi idiak. Batela bildumako 44. liburua, 5 eta 9 urte arteko haurrei zuzenduta dago.



## ORTZADAR ARRAINA

Marcus Pfister

### PAMIELA

Arrain guztiek miresten zuten arrain distiratsu hura, hain zen ederra, eta haiekin jolasteko deitzen zioten, baina Ortzadar Arrainak ez zien kasurik egin. Egun batean denek bizkarra eman zioten eta bakarrik eta triste geratu zen. Olgarro jakintsuak bere jarrera harroarekin ukatutako adiskidetasuna lortzeko bidea adieraziko dio.




## SEXU HEZIKETARAKO GIDA

Itxaso Torregrosa

### LAB

Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzako baliagarria izan daitekeen sexu heziketarako gida da honakoa. LAB sindikatuaren irakaskuntza arloak argitaratu du eta Itxaso Torregrosa sexologoa izan da testuen egilea. Etapa guztietarako gida eta material zehatzak sortu nahi izan dituzte 'Sexualitate askatzailea iruten' egitasmoaren baitan.




## HARI SINGLE BAT

Idoia Garzes / Leire Urbeltz

### EREIN

Amaren baserri zaharrera oporretara joanda, amonaren kutxa zaharra zabaldu du Arrakok. Amonaren ardatza aurkitu du han, makila magikoa dirudien zurezko tresna bat haria harilkatzeko erabiltzen dena. Amonaren ardatza eskuetan, etendako haria birsortuko du Arrakok. Nor garen jakiteko, nondik gatozen jakin behar dugulako. 2018ko Lizardi Saria eskuratu du liburu honek.




## ADOS!

Danel Ibisate / Araiz Mesanza

### DENONARTEAN

Gogoa eta Gosea antzekoak badira ere, ez dira guztiz berdinak. Gogoa norberaren buruaren barruan bizi da. Gosea, ordea, norberaren sabelaren barruan! Baina batzuetan elkarrekin entzuten ditugu eta nahastu egiten gara. Danel Ibisate izan da testuen egilea eta Araiz Mesanzak ilustratu ditu liburuen 40 orrialdeak. 6 urtetik gorako haurrentzako dago gomendatuta.



## OTSOKO ETA ETXERAKO BIDEA

Jim Field / Rachel Bright

### IBAIZABAL

Otsokok ez du nahi inork laguntzerik. Nagusia da, eta gai da dena bakarrik egiteko. Baina Artikoko gau hotzean galtzen denean, konturatzen da denok behar dugula lagun bat aldamenen. 4 urteko haurrei zuzendutako liburu honek maitasunaz, laguntasunaz, familiaz eta elkarbizitzaz hitz egiten du, eta bereziki, behar denean laguntza eskatzeaz.

# PROPOSAMENA

## ‘Kapen’, karta-joko didaktikoa

### Hondarribiko faunaren eta floraren ezagutza jolasaren eskutik dator haurrengana

Herriko ekosistema jolasaren bidez ezagutzeko aukera eskaini nahi die Hondarribiko Arma Plaza Fundazioak herriko haur eta gaztetxoei, eta, helburu horrekin, Kapen karta-jokoaren proiektua eman du argitara. Sei karta-familiatan banatuta, herriko fauna eta flora osatzen duten izakiak agertzen ditu. Gainera, horien izenak Hondarribiko hizkeran, euskara batuan nahiz modu zientifikoan azaltzen dira.



Lehoia, foka edo ostruka ezagutzeko arazorik ez dute izango, segur aski, Hondarribiko nahiz Euskal Herriko edozein etxetako txikienek, nahiz eta erabat arrotzak izan animalia horiek euskal ekosistemetan. Akaso, ordea, ez dira gai izango euren herriko txoririk arruntari izena jartzeko, edo herriko errekan dabilen amuarraina identifikatzeko. Horri erremedioa jartzeko asmoz sortu du, besteak beste, Hondarribiko

Arma Plaza kultur eta turismo-guneak Kapen karta-jokoa. Izan ere, herriko ekosistemak, fauna eta flora ezagutaraztea du helburu jolasak, modu didaktikoan, betiere. Jolas hori osatzen jardun dira Eñaut Aiarzaguen marrazkilaria, Iñaki Sanz biologoa eta Lore Erriondo pedagogoak. Jokoa doan banatu dute herriko ikastetxetan, eta 10 €-ren truke eskura daiteke Arma Plaza Fundazioaren bulegoan nahiz webgunean.

Sei karta-familiak osatzen dute Kapen karta-jokoa, eta ekosistema bat irudikatzen du horietako bakoitzak: basoa; ibai eta errekek; itsasoa eta itsaslabarrak; landa-eremua; padura; eta hiria. Familia bakoitzak, bere aldetik, seina karta biltzen ditu, eta karta bakoitzak, berriz, izaki bat irudikatzen du: anfibioa edo narrastia; arraina; hegaztia; landarea; ornogabea; eta ugaztuna. Besteak beste, platuxa, amuarraina, karrakela,

huntza, apoa, suge gorbataduna edo kaskabeltza agertzen dira kartetan.

### Nola jolasten da?

Sei karta-familia horiekin egiteko, lau joko proposatzen dituzte egileek. Batetik, puzzleak egiteko erabil ditzakete etxeko txikienek. Izan ere, familia bereko kartak elkartuta, dagokien ekosistemaren irudia osatzen da. Bigarrenik, familia-joko klasikora joko daiteke, hau da: partaide bakoitzak karta-familiak osatzea izango du erronka. Hirugarrenik, memoria-jokoa egin daiteke. Horretarako, karta handiago batzuk sortu dituzte, eta izaki bat baino gehiago agertzen dira horietan. Bere kartari begiratzeko denbora bat izango du partaide bakoitzak, eta, ondoren, bere kartan zein izaki agertzen diren zerrendatu beharko du, buruz eta kartari begiratu gabe. Azkenik, arreta- eta azkartasun-joko bat proposatzen dute egileek. Horretarako, karta handiago horiek banatuko dira partaideen artean, eta, txanda bakoitzean, karta bat botako beharko du partaide bakoitzak erdira. Bere kartako izaki bat beste batean agertzen dela ikusten badu partaideren batek, *kapen* esan beharko du ahalik eta azkarren, eta kontrarioaren karta eskuratzeko aukera izango du. Karta gehien bildu dituenak irabaziko du jokoa.


### Naturaren eskutik hizkuntza

Karta-jokoaren helburu nagusia herriko ekosistemak ezagutaraztea bada ere, Kapenen bidez herri-hizkera ere zabaltzen lagundu nahi dute. Horrela, karta bakoitzean, dagokion izakiaren izena hondarribieraz, euskara batuan nahiz modu zientifikoan agertuko da idatzirik.

Bestalde, *kapen* izena bera ere herri-hizkerari egindako keinu bat da. Izan ere, hitz horrek putzura buruz salto egitea adierazi nahi du hondarribieraz.

### Irudiaren garrantzia

Karta-jokoaren aurkezpen ekitaldian azaldu zuteneguz, irudiari garrantzia berezia eman nahi izan diote, eta arreta jarri dute, bai ekosistemaren irudiak, bai animalien ahalik eta errealistenak izan daitezkeen. “Askotan, animaliak karikatuzatuzeko joera dago, gizakiengana gerturatzeko. Errealistak izan nahi genuen guk, baina ilustrazioak erabilia, ez argazkiak, ikuspegi zehatzagoa eskaintzen dutelako”, zioen Iñaki Sanz-Azkuek. Erronka horren aurrean “beldurtu” egin zela aitortu zuen Eñaut Aiarzaguena marrazkilariak, “hainbeste animalia, landare modu identifikagarrian” egin behar zituela jakitean. Baina azkenean emaitzarekin gustura gelditu dira.



### Kapen karta-jokoa

Sei karta familiak osaturiko jokoa. Familia bakoitzak herriko ekosistema bat irudikatzen du, eta sei kartaz osatuta. Karta horietako bakoitzak ekosistema horretako izaki bat irudikatzen du.

### Nola jolasten da?

Lau joko egin daitezke:

- Puzzleak-jokoa (txikieneztat).
- Familia-joko klasikoak.
- Memoria-jokoa.
- Arreta- eta azkartasun-jokoa

### Non eskura daiteke?

Hondarribiko Arma Plaza Fundazioaren bulegoan edo webgunean ([www.armaplaza.eus](http://www.armaplaza.eus)), 10 €-ren truke.





# ATZEKO ATETIK



## FANTASIA MUNDUA

OLATZ SALVADOR MUSIKARIA

**F**ilosofiako lehen eskolan azaldu ziguten filosofo izateko haur izan behar ginela berriz. Munduari lehen aldia balitz bezala begiratu eta geure buruari etengabe galderak egin. Gertatzen diren gauza guztiei harriduraz begiratzen ikasi eta begi subjektibo, distortsionatu eta koloretsu horien esentzia mantendu.

Paradoxikoa da nola, hazten goazen neurrian, badugun gugan izan diren gu guztiak geruzaz estaltzeko joera hori. Nik barruan dudan haurra esku ahur bat da eta eskean dabil askotan, jolasean bestetan, irudi berrien bila etengabe. Nekatuta egon arren, ez du ohera joan nahi eta, zerbait/norbait gustatzen zaionean, *loop* botoia sakatzen du, dena behin eta berriz errepikatzeko, harrapatuta geratu arte. Eta nire ni guztien arteko borrokak orroka.

Urte batzuk lehenago, bere mundua bitan zatitzen erakutsi zioten: mundu erreala eta fantasia mundua. Lehena ezagutzen zuela iruditzen zitzaion,

baina bigarrenak egonezin moduko bat eragiten zion, bertara nola iritsi, norekin joan edo bertako mamu guztiei nola aurre egin imajinatuz. Ez nintzen inoiz marra hura zeharkatzera ausartu, badaezpada.

Arriskua bada haur izatearen beharrezko balio intrintseko bat. Ikaste-ko mekanismo gorabeheratsu bat. Saiakera eta akatsen arteko tandem bat, beti deseroso mantenduko gaituena, baina, ezinbestean, berrikuntzarako baldintzak emango dizkiguna. Orekarion beharrezko oztopoa.

Nik eskua sutan sartu nuen behin. Amak harro kontatzen du larrialdietako trantzearen ostean, beregana joan eta “lasai, ama, dena pasa da” edo antzerako zerbait esan omen niola.

Irakaspena nahiko argia zen. Iritsi ziren gero ñabardurak, zalantzak, seinaleak, debekuak, tunelak eta segurtasun tarteak. Eta, bat-batean, lehengo marra gorriak lausotu ziren, eta gu horietan zehar labaindu ginen, zer egiten ari ginen jakingo ez bage-

nu bezala. Albo kalterik izango ez balu bezala.

Psikologia kognitiboaren arabera, estimulu baten errepikapenaren ondorioz honekiko erantzuna gutxitu egiten da. Ohikuntza. Hori omen da ikasketa era primitiboena, organismoaren maila guztietan ematen dena. Prozesu hau ezinbestekoa da gizakiok gure ingurumenera egokitzeko. Abesti bat behin eta berriz entzutean, gorputzak dopamina askatzeari uzten dio. Bai, badakit erotzeko arriskua izango genukela hori gertatu ezean, baina nostalgia moduko bat eragiten dit fenomeno horrek. Eta nire ni haurrenak oihukatzen du Alaine Agirrerren *Odol mamituak* liburuaren hasieran irakurritako Kawabataren aipua: “Gorroto ditut emozio moderatuak”.

Duela urte batzuk aitari galdetu nion ea non geratu ote zen fantasia mundua. Erantzun zidan fantasia munduak hor jarraitzen duela. Pertsonaiak eta paisaiak aldatu direla, besterik ez.



Jende gehiagoz  
abokatu errazteko,  
leguri gehiagorik gero  
iruzteko eta  
eraginez jarraitzeko  
**EDIN ARDANKONI**

***Bizi nahi duen herria!***



# 20 urte

elkarrengandik ikasten

hh  
hik hasi

Udako Topaketak 2019 - Donostia

Urtalak 1 maha-ingurak

Urtalak 2, 3 eta 4 ikastetxak



Fitxaketa berria: itxo-kizka, pedagogia kolektiboa, behaketa arrazionala, ulertuzkoaren behaketa, Plutarkei pedagogia, norgehiagoka irakurketa, berriroren iraketa, ditxeta, hasiari eta poesia argazkilaritza, piztasun irakurketa, sarraraztatzen irakurketa, eta besteak beste. Irakurketa, argazkilaritza, literatura, eta besteak beste. Irakurketa, argazkilaritza, literatura, eta besteak beste. Irakurketa, argazkilaritza, literatura, eta besteak beste.

Informazioa eta motibazioa [www.hikhasi.euz](http://www.hikhasi.euz) helbidean